

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Vitoria-Gasteizko Udala

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

2011





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	7
I. SARRERA.....	9
II. IRITZIA.....	11
II.1 UDALA	11
II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA	11
II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA	12
II.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK	14
II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA	14
II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA	14
II.3 SOZIJETATE PUBLIKOAK.....	15
II.3.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA	15
II.3.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA	15
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	17
III.1 UDALA ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK	17
III.1.1 AURREKONTUA, LIKIDAZIOA ETA KONTABILITATEA	17
III.1.2 LANGILERIA	18
III.1.3 KONTRATAZIOA	19
III.1.4 DIRU-LAGUNTZAK	21
III.1.5 BERANKORTASUNA ETA AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA.....	21
III.2 SOZIJETATE PUBLIKOAK.....	22
III.2.1 AURREKONTUA, LIKIDAZIOA ETA KONTABILITATEA	22
III.2.2 LANGILERIA	22
III.2.3 KONTRATAZIOA	22
III.2.4 DIRU-LAGUNTZAK	23
III.2.5 ORUBEAK BESTERENTZEA	23
III.2.6 BERANKORTASUNA	24
IV. ERABILERA ANITZEKO UDAL ERAIKINAREN ORDENANTZA FISKALAREN ANALISIA ETA ERABILERA PRIBATIBOA EDO JABARI PUBLIKOKO APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEAGATIKO TASAREN APLIKAZIOA, 2008-TIK 2013-RA BITARTEKO EKITALDIETAN.....	25



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.1	ORDENANTZA FISKALAREN AZTERKETA JURIDIKOA	25
IV.2	TASEN APLIKAZIOA	26
IV.3	ONDORIOAK	28
V.	FINANTZA ANALISIA	30
VI.	URTEKO KONTUAK	34
VI.1	UDALA	34
VI.2	ERAKUNDE AUTONOMOAK	37
VI.3	SOZIJETATE PUBLIKOAK	41
	ALEGAZIOAK	43
	ABREVIATURAS	81
I.	INTRODUCCIÓN	83
II.	OPINIÓN.....	85
II.1	AYUNTAMIENTO	85
II.1.1	OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD	85
II.1.2	OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES.....	86
II.2	ORGANISMOS AUTÓNOMOS	88
II.2.1	OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD	88
II.2.2	OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES.....	88
II.3	SOCIEDADES PÚBLICAS	89
II.3.1	OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LEGALIDAD	89
II.3.2	OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES.....	89
III.	CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	91
III.1	AYUNTAMIENTO Y ORGANISMOS AUTÓNOMOS.....	91
III.1.1	PRESUPUESTO, LIQUIDACIÓN Y CONTABILIDAD.....	91
III.1.2	PERSONAL	92
III.1.3	CONTRATACIÓN.....	93
III.1.4	SUBVENCIONES	95
III.1.5	MOROSIDAD Y ESTABILIDAD PRESUPUESTARIA	96
III.2	SOCIEDADES PÚBLICAS	96
III.2.1	PRESUPUESTO, LIQUIDACIÓN Y CONTABILIDAD.....	96
III.2.2	PERSONAL	96
III.2.3	CONTRATACIÓN.....	97
III.2.4	SUBVENCIONES	97
III.2.5	ENAJENACIÓN DE SOLARES	98
III.2.6	MOROSIDAD	98



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. ANÁLISIS DE LA ORDENANZA FISCAL Y LA APLICACIÓN DE LA TASA POR UTILIZACIÓN PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DE DOMINIO PÚBLICO DEL EDIFICIO MUNICIPAL MULTIUSOS, EN LOS EJERCICIOS 2008 A 2013	99
IV.1 ANÁLISIS JURÍDICO DE LA ORDENANZA FISCAL.....	99
IV.2 APLICACIÓN DE LAS TASAS.....	100
IV.3 CONCLUSIONES	102
V. ANÁLISIS FINANCIERO	104
VI. CUENTAS ANUALES.....	108
VI.1 AYUNTAMIENTO	108
VI.2 ORGANISMOS AUTÓNOMOS	111
VI.3 SOCIEDADES PÚBLICAS	115
ERANSKINAK/ANEXOS	117
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	117
A.2 Presupuesto y Modificaciones presupuestarias	118
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos	121
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	122
A.5 Enajenación de inversiones reales	125
A.6 Gastos de personal	125
A.7 Compra de bienes corrientes y servicios	128
A.8 Transferencias y subvenciones concedidas	130
A.9 Inversiones reales.....	132
A.10 Inmovilizado no financiero	136
A.11 Activos financieros e Inversiones financieras	137
A.12 Pasivos financieros y Gastos financieros	139
A.13 Residuos de ingresos y Pendientes de cobro	140
A.14 Operaciones extrapresupuestarias	141
A.15 Tesorería e Ingresos patrimoniales	144
A.16 Contratación	146
A.17 Créditos de compromiso.....	148



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.18 Organismos Autónomos	150
A.18.1 Personal.....	151
A.18.2 Contratación.....	151
A.19 Sociedades Públicas	152
A.19.1 Personal.....	153
A.19.2 Contratación.....	154
A.19.3 Subvenciones.....	158
A.19.4 Endeudamiento	159
A.19.5 Existencias	159
A.19.6 Fondos Propios	159
ALEGACIONES	161

Vitoria-Gasteiz, 2014ko utzailaren 21an
Vitoria-Gasteiz, 21 de julio de 2014



LABURDURAK

BAIC:	BAI Center, Kongresu, Erakusketa eta Antzezte Arteen Nazioarteko Zentroa
ALHAO:	Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala
ZZSK:	Zaharrentzako Zentro Sozio Kulturalak
75/2004 FD:	75/2004 Foru Dekretua, abenduaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena, Arabako lurralde historikoko toki-erakundeen aurrekontuaren egitura eta kontabilitate publikoko plan orokorra onartzen duena.
AFA:	Arabako Foru Aldundia
TET:	Toki-erakunde Txiki
TEFFF:	Toki-erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza
JEZ:	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga
OHZ:	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga
EIOZ:	Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zerga
GOFI	Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea
AAMIN:	Antzezte Arteen eta Musikaren Institutu Nazionala
TMIZ:	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga
HILBIZ:	Hiri izaerako Lursailen Balio Igoeraren gaineko Zerga
TGB:	Tokiko Gobernu Batzarra
39/2010 Legea:	39/2010 Legea, abenduaren 22koa, 2011rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
15/2010 Legea:	15/2010 Legea, uztailaren 5ekoa, abenduaren 29ko 30/2004 Legea aldarazten duena, merkataritzako eragiketetan berankotasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena.
SPKL:	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
EFPL:	6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
DLO:	38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.
TAOAL:	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena.
LHL:	2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.
3/2004 FA:	3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoa.
TOAFA:	41/89 FA, uztailaren 19koa, Toki Ogasunak Arautzen dituena.
AEUA:	Aurrekontua Egikaritzeko Udal Araua
EEP:	Enpleguaren Eskaintza Publikoa
AKPP:	Administrazio Klausula Partikularren Plegua
HAPO:	Hiri Antolaketako Plan Orokorra
PO:	Prezioa orduko.



LUO:	Lurraren Udal Ondarea.
PGPN:	Publikotasunik Gabeko Prozedura Negoziatua
AP:	Aleko Prezioak
APKLEO:	Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu bidez onetsitakoa.
LZ:	Lanpostuen Zerrenda.
ALH:	Arabako lurralde historikoa
APKLTB:	Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua, ekainaren 16koa, 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretu bidez onetsitakoa.
TOALTB:	2/2004 Legegintzako Errege-Dekretua, martxoaren 5ekoa, Toki Ogasunak Arazten dituen Legearen Testu Bategina onesten duena.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia

I. SARRERA

HKEEk, otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraiki, Gasteizko Udalaren 2011ko Kontu Orokorraren fiskalizazioa ez ezik, bere toki erakunde autonomoen eta udalaren gehiago partaidetza duten sozietate publikoen fiskalizazioa ere mamitu du. Gainera, Eusko Legebiltzarrak hala eskatuta ordenantza fiskala eta erabilera anitzeko udal eraikinaren erabilera pribatiboa edo jabari publikoko aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasaren aplikazioa, 2008tik 2013ra bitarteko ekitaldietan, biak barne, izan ditu aztergai. Eskuratutako ondorioak Txosten honen IV. idazpuruan jaso dira xehetasunez.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, erosketa eta zerbitzuak eta diru-laguntzen emakida.
- Kontularitzakoak: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Gasteizko Udalaren Kontu Orokorrak Udalaren eta bere erakunde autonomoen aurrekontuen likidazioa besarkatzen du; baita, Udalaren, erakunde autonomoen eta sozietate publikoen –zeinetan udala kapital sozialaren % 50etik gorako ehunekoaren jabe den- egoeraren balantzea, galera-irabazien kontua eta oroitidazkia ere. Sozietate publikoen kontuei dagokienez, gure lana kanpoko enpresek gauzatutako auditoretzako txostenak aztertzea izan da eta horretarako, beharrezko iritzitako proba osagarriak edo auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.
- Bestelako alderdiak: Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, Udalaren, bere erakunde autonomoen eta sozietate publikoen kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisisa.

Gasteizko udalerrak Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera 239.562 biztanle zituen 2011ko urtarrilaren 1ean eta bere antolamenduan, Udalaz gain ondoko erakunde autonomoak eta % 50ekoa baino partaidetza handiagoa duten sozietate publikoak barne hartzen ditu:

- Ingurugiro Gaietarako Ikastegia (IGI - CEA).
- “Luis Aramburu” Udal Musika Eskola (Musika Eskola).
- “José Uruñuela” Udal Dantza Kontserbatorioa (Dantza Kontserbatorioa).
- Gasteizko Udal Urak, SA - Vitoria-Gasteizko Udal Urak, S.A. (AMVISA).
- Gasteizko Hiri Garraioak, SA – Gasteizko Hiri Garraioak, S.A. (TUVISA).



- Vitoria-Gasteiz Hiri Historikoaren Indarberritze Integralerako Agentzia, SA (ARICH). 2012ko apirilaren 27an akziodunen Batzar Nagusiak Sozietatea desegitea eta likidazio aldia abiaraztea erabaki zuen.
- Gasteizko Udal Hirigintza Elkarte, Zabalgunea, 21 S.A. (ZABALGUNEA, 21).
- Gasteizko Industria Lurra, S.A. (GILSA).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 UDALA

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

1. 2011ko martxoaren 25ean TGBk erabaki zuen 2011ko aurrekontuaren kontura 2010eko ekitaldikoak ziren gastuak aitortzea, 2,2 milioi euroren zenbatekoan, obrak egiteko, zerbitzuak emateko eta ondasunak hornitzeko baliatu zirenak; horiek guztiak ezin egotzi izan zitzaizkion zegoen aurrekontuari, behar hainbateko krediturik ez zegoelako edo gastu egiaztagiriak 2011n egin zirelako.
2. 2011ko ekitaldian zehar Udalak 2010eko ekitaldiko kreditu geldikinak txertatu ditu eta kreditu osagarriak onartu ditu, horiek finantzatzeko behar hainbateko diruzaintza geldikinik izan gabe, 3,6 milioi euroren zenbatekoan (ikus A.2).

KONTRATAZIOA (IKUS A.16)

3. Guztira 5,1 milioi euroan esleitutako bi obra kontratutan, hasierako kontratuan 831.153 euroren aldaketak egin dira SPKLren 217.3 artikulua aurreikusten dituen izapideak bete gabe, izan ere obrak aldaketa onartu aurretik gauzatu dira (5 eta 12. espedienteak). Berebat, 14,9 milioi euroren zenbatekoan esleitutako beste kontratu batean, obra kontratuari lotutako zerbitzuaren aldaketetatik bi onartu aurretik ematen ari ziren, guztira 1,3 milioi euroren zenbatekoan, APKLTBren 101 artikulua urratuz (13. espedienteak).

DIRU-LAGUNTZAK (ikus A.8)

4. Udalak 2011n 2 diru-laguntza eman dizkie bi kirol federakunderi lankidetzaz hitzarmen bitartez, 1,1 milioi euroren zenbatekodunak; ordea, diruz lagundutako xedea bat dator SPKLn araututako kontratuetan jasotako zerbitzu prestazioekin. Jokamolde honen ondorioz, gastu publikoa ez zaie administrazio publikoen kontratazioan buru egiten duten publizitate, lehia, gardentasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezeko printzipioei egokitzen (ikus A.8).

Epaitegi honen ustetan, Gasteizko Udalak, 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete du 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Udalak ez du 2011ko abenduaren 31ko ez aurrekontuan ez ondarean erregistratu TEFFFren ekitaldi horretako likidazio negatiboa, 7,6 milioi eurorena, zeina 2012ko TEFFFen izango duen partaidetzatik kenduko den.

1. 2011ko aurrekontu likidazioan barne hartutako konpromiso kredituen gastu egoerak, 193 milioi eurorenak, ekitaldi itxieran konpromiso kredituenak ez diren 175 milioi euro barne hartzen ditu eta horietatik 131 milioi euro 2011n BAIC eta Geltoki Intermodalaren kontratuen amaierari dagozkio (ikus A.17).
2. Udalak ez du euskarri egoki edo behar adinakorik, Egoeraren balantzean jasotako ibilgetuaren kopurua 2011ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen egiazko egoerarekin bat datorren ondorioztatzen utziko duenik.
3. Udalak finantzaketa atxikia duten gastuen gainean egiten duen kontrolak ez digu ondorioztatzen uzten Udalak atxikitako diruzaintza geldikin modura eta gastu orokorretarako diruzaintza geldikin modura jasotako kopuruak zuzenak diren.

Hori dela eta, 2011n ENSANCHE 21etik jasotako dibidenduak, 26,5 milioi eurorenak, LUOri atxikitako diru-sarrerak dira eta LHLren 115. artikuluan ezarritako helburuetarako erabili behar dira. Guztira jasotako zenbatekotik, LUOrako soilik 15,5 milioi euro eman dira guztira; honenbestez, 11 milioi euro atxikitako diruzaintza geldikinari dagozkio.

4. 2011ko abenduaren 31n Udalak ENSANCHE 21, SAri guztira 16,5 milioi euro ordaintzeko ditu, Sozietate horrek BAIC eraiki eta kudeatzeko eta Geltoki Intermodala eraikitzeke Udalak egindako mandatuen kontzeptuan gauzatutako gastuen ondorioz. Kopuru honetatik erregistratzeko daude 9,4 milioi euroren inbertsioak. Gainera, "Finantza pasiboak" 9. kapituluak 6,4 milioi euroren zenbatekoa kobratzeko du, ordaintzeko dauden aitortutako obligazioen zati bat finantzatzeko; horiek, baina, ez dira baliatuko Udalak BAIC eraikitzeari uko egin diolako (ikus A.9 eta A.12). Zor hau ENSANCHE 21-era ekarritako ondarearekin kitatzen da, ARICH desegin, kitatu eta suntsitu ondoren, 2012ko martxoaren 1etik aurrerako ondorioekin.
5. Hona hemen Gasteizko Udalaren 2011ko abenduaren 31n gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinean, data horretan itxitako Egoera Balantzean eta Funtz Propioetan eragina duten doiketak:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AURREKONT.	ONDAREKOA		
	DIRUZAINZA	AKTIBOA	PASIBOA	FUNTS PROPIOAK
	GELDIKINA			
2011.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak				
A.4 TOFF 2011ko likidazioa.....	-	-	7.562	(7.562)
A.7 Ondasun arrunten erosketak eta zerb.	(3.607)	-	3.607	(3.607)
A.14 Gizarte segurantzari ordainketak gastua erregistratu gabe	(1.751)	-	1.751	(1.751)
Ekitaldi itxietako eskub., zorpetu gabeak eta 11.12.31n erregistratuak				
A.13 AMVISAKo 2010eko ekit. dibidendu bikoiztuak.....	(3.000)	(3.000)	-	(3.000)
Ekitaldiko eskubideak, zorpetu gabeak eta 11.12.31n erregistratuak				
A.4 Diru-laguntza arruntak eta kapitalezkoak	(1.303)	(603)	700	(1.303)
Ekitaldiko eskub., zorpetutakoak eta 11.12.31n erregistratu gabeak				
A.4 Diru-laguntza arruntak eta kapitalezkoak	2.671	2.338	(333)	2.671
Beste batzuk				
A.13 Nekez kobratzekoen hornidura defizita	(16.175)	(16.175)	-	(16.175)
Ondare Kontabilitatearen doiketa				
A.11 Sozietateen kapital sozialean partaidetza balorazioan aldeak.....	-	3.481	-	3.481
A.15 Kobratzeko dauden ENSANCHE 21eko dibidenduak	-	35.326	-	35.326
GUZTIRA	(23.165)	20.687	13.891	6.890

- 2011ko abenduaren 31n Udalak "Kontuen saldoa ekitaldi itxieran" aurrekontuz kanpoko kontuan 7,5 milioi euroren zenbatekoa du erregistratua, nagusiki aurrekontuari ezartzeko dauden diru-bilketako kontu murriztuen saldoei dagozkienak. Ez dakigu saldo horretatik zein atal dagokien ekitaldi itxieran aitortzeko dauden eskubideei, zeinak honenbestez, diruzaintza geldikina gehitu beharko zuketena (ikus A.14).
- Txosten hau idatzi dugun datan erreklamazio judizialak daude ebazteko eta horien zenbatekoa zehaztea ezinezkoa da (ikus A.3 eta A.9).

Epaitegi honen iritzira, 1etik 7ra bitarteko paragrafoetan azaleratutako salbuespenen eragina salbuetsita, Gasteizko Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan erakusten du 2011ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa, 2011ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla leiala eta ekitaldian bere eragiketen emaitzena.

Udalak ez du 2011ko abenduaren 31n erregistratu AMVISAK 2008tik 2011ra bitarteko ekitaldietan emandako uren, hondakinen tratamenduaren eta estolderiaren udal zerbitzuari dagokion gastua, 5,5 milioi euroren zenbatekoan. Alabaina, zorra data horretako egoeraren balantzean jasoa dago (ikus A.7). 2014ko urtarrilaren 17an TGBk Udalaren eta AMVISAREN artean hitzarmen bat izenpetzea onartu zuen, Udalak ordaintzeko zuen merkataritza zorra finantza zor bihurtzeko.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.2 ERAKUNDE AUTONOMOAK: INGURU GAJETARAKO IKASTEGIA, "LUIS ARANBURU UDAL MUSIKA ESKOLA, "JOSE URUÑUELA" UDAL DANTZA KONTSERBATORIOA

II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA

1. Dantza Kontserbatorioaren LZn lan kontratu finkodun 16 plaza daude, sortu zirenetik bete gabe daudenak (6, 1992an eta 10, 2004an), orduz geroztik behar bezala betetzeko dagokion enplegu eskaintzak egin ez direla, EFPLren 23. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Aipatutako postu horiek lanpostu hutsa bete arte aldi baterako kontratua duen langileriak betetzen ditu.
2. Dantza Kontserbatorioak 2011n Irakasle postu baten lanpostu hutsa bete arteko kontratazioa gauzatu du Lanbidek aurreko kontratazio batetarako igorritako zerrenda baliatuta. Prozedura honek ez du Funtzio Publikorako sarbidean buru egiten duten berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana bermatzen, EFPLren 33.1 artikulua urratuz.

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako lege hausteak alde batera, Gasteizko Udalaren Toki Erakunde Autonomoek zuzentasunez bete dute 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. IGIk atxikitako sarreradun gastuetan finantzaketa desbideratzeen azterketarik ez dauka, 3/2004 F Aren 48.7 artikulua agintzen duen moduan; horren ondorioz, ekitaldiaren emaitzak eta diruzaintza geldikinak ez dituzte barne hartu balizko finantzaketa desbideratzeetatik eratorritako doiketak. Honenbestez, ez dakigu atxikitako diruzaintza geldikinaren eta gastu orokorretarako diruzaintza geldikinaren arteko banaketa zein den.
2. Egungo datan ez dago euskarri egoki edo behar adinakorik, IGIren egoeraren balantzeetan jasotako ibilgetuko kopuruak 2011ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen egiazko egoera islatzen duen ondorioztatzen utziko duenik.

Epaitegi honen iritzira, 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Gasteizko Udalaren Erakunde Autonomoen Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2011ko ekitaldiaren aurrekontu ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten dute, 2011ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.



II.3 SOZIETATE PUBLIKOAK: AMVISA, TUVISA, ARICH, ENSANCHE 21 ETA GILSA

II.3.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA (IKUS A.19.2)

1. Autobusen Geltoki Intermodala eraikitzeko proiektuaren idazketa 2010eko uztailaren 9an 678.000 euroan esleitu zen (BEZa barne). 2011ko uztailaren 8an TGBk kudeatzeko gomendioaren baldintzak aldatzea erabaki zuen eta honenbestez, ENSANCHE 21-ek kontratu hau suntsitzea, zeinaren egikaritza 339.000 eurorena zen, eta sozietateari publikotasunik gabeko prozedura negoziatu berria abiarazteko agindu zion, proiektua Geltokiaren kokagune berrira egokitzearren. Kontratu hau aurrekoa esleitu zitzaion hirugarren berari esleitu zitzaion 2011ko azaroaren 9an, 700.000 euroren zenbatekoan (BEZ barne hartu gabe). Ez da justifikatzen SPKLren 154 eta 158 artikuluetan ezarritako baldintzak betetzea publikotasunik gabeko prozedura negoziatua den bezalako prozedura apartekoa baliatzeko.
2. AMVISAK 191.452 euroren gastua gauzatu zuen publikotasun eta lehia printzipioak betetzea bermatuko zuen prozedura baliatu gabe.

Epaitegi honen ustetan, Gasteizko Udalaren Sozietate Publikoek, 1etik 2ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, zuzentasunez bete dute 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.3.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Higiezin merkatuak bizi duen krisia aintzat hartuta, zalantza dago ARICH, ENSANCHE 21 eta GILSAren jabe diren sozietateen izakinak eta higiezin ibilgetuarekin lotutako aktiboak gauzatzeari dagokionez; horien saldoa ekitaldi itxieran, hurrenez hurren 17,0, 164,8 eta 39,3 milioi eurorena da izakinetan eta GILSA sozietateak higiezin ibilgetuan 2,6 milioi euro ditu.
2. ENSANCHE 21 sozietatearen ibilgetu materialen idazpuruak Sozietatearen egoitza berria hartzen duen eraikina egokitzeko kostua jasotzen du, 2,3 milioi euroren zenbatekoan, Gasteizko Udalaren jabetzakoa dena. Txosten hau idatzi dugun datan, gauzatzeko daude Sozietatearen eta Gasteizko Udalaren arteko akordioak, aipatutako eraikinaren erabilera baldintzak arautuko dituztenak; litekeena aipatutako kontularitzako erregistroa eragitea.
3. ENSANCHE 21 sozietatearen “Finantza aktiboak” idazpuruak “Bezeroak” idazpuruan, besteak beste, sozietateak Konpentsazio Batzordeei igorritako 17,4 milioi euroren fakturen saldoa jasotzen du; eta “Enpresei emandako kredituak” idazpuruan, berriz, Konpentsazio Batzorde ezberdinei emandako maileguren saldoa, 3,4 milioi eurorena. Txosten hau idatzi dugun datan hitzarmen bat negoziatzen ari dira zor horiek kitatzeko eta horrek erregistratu den zenbatekoan eragina izan lezake.
4. ENSANCHE 21 sozietateak 2011ko ekitaldi amaieran erregistratzeko ditu hainbat hirigintza gastu, 2,7 milioi euro inguruko zenbatekoan. Eragiketa hau erregistratzeko



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Galera eta irabazien kontuko gastuak eta Konpentsazio Batzordeetako hornitzaileen eta hartzekodunen idazpuruko saldoak kopuru horretan gehitzea ekarriko luke.

Epaitegi honen iritzira, 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenek izan dezaketen eragina alde batera, Gasteizko Udalaren Sozietate Publikoen Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2011ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa erakusten dute, 2011ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena eta ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.

ARICH sozietatearen gainean plazaratu dugun iritzian eraginik izan gabe, sozietatearen administratzaileek jarduera eten dela eta beste sozietate eta udal sail batzuetan integratu dela jakinarazi dutela adierazten dugu. Sozietatearen jardueraren ezaugarriak eta duen udal izaera aintzat hartuta, aktibo eta pasiboak udal erakunde horietara aldatuko dira. Honenbestez, egitate honek ez du aktibo eta pasiboen balorazioa eragiten eta ekitaldi itxieran balantzean zuen klasifikazioa abian den enpresaren printzipiopean formulatu da. Ekitaldiko urteko kontuak ez dituzte sei administratzailek izenpetu eta horren arrazoitzat jo dute formulatu aurretik dimisioa aurkeztu zutela eta ez zetoze bat desegitearen edo jarduera etetearen kausarekin.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 UDALA ETA ERAKUNDE AUTONOMOAK

III.1.1 AURREKONTUA, LIKIDAZIOA ETA KONTABILITATEA

Aurrekontua

- Udalbatzak 2011ko aurrekontua behin betiko 2011ko urtarrilaren 26an onartu zuen eta ALHAOn 2011ko otsailaren 7an onartu zuen (ikus A.2). Aurrekontua behin betiko ezarri beharreko ekitaldiaz aurreko urteko abenduaren 31 baino lehenago onetsi behar da, lanabes erabilgarri eta eraginkorra izan dadin, 3/2004 FAre 15.2. artikulua agintzen duen moduan.
- Udalaren konpromiso-kredituen egoerak “Beste inbertsio estrategiko batzuk” izeneko kontu-saila barne hartzen du, 2012ko ekitaldirako 1 milioi euroren zenbatekoarekin. Izen orokorreko kontusail honek espezialitate kualitatiboko printzipioa urratzen du eta honenbestez, komenigarria litzateke izena zuzentzea eta berau zehaztea.

Likidazioa eta Kontu Orokorra

- Diruzaintza geldikin bidez finantzatutako obligazioengatik aurrekontu emaitzari egindako doiketak txertatutako kreditu obligazio guztien zenbatekoa barne hartzen du, zeinahi dela ere horren finantzaketa, eta ez soilik diruzaintza geldikin bidez finantzatutakoak.

Kontularitzako erregistroa

- 2011n bertako langileriarik kontsumoko maileguren emakida eta amortizazioaren kontularitzako erregistroa, hurrenez hurren, 446.570 eta 434.790 eurorena, aurrekontuz kanpoko kontuetan egin da eta ez, hurrenez hurren, gastu eta sarreraren “Finantza aktiboak” 8. kapituluetan.
- Egoera balantzearen “Abian den ibilgetua” kontuak ez du ekitaldian mugimendurik izan eta horren saldoa 2011ko abenduaren 31n, 15,4 milioi euro alegia, 1999 eta 2006ko ekitaldietan zuen bera da (HKEEk aurrez fiskalizatutako ekitaldiak). Udalak kontu honen saldoa erregularizatu behar luke eta ibilgetuko behin betiko kontuei aplikatu.
- Egoeraren balantzeak ez du LUOa bereizitako idazpuru baten jasotzen, 9/2008 Foru Dekretuan onartutako Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrari egindako aldaketetan ezartzen den moduan. Gainetik, Udalaren LUOak ez ditu sozietate publikoen jabetzako diren ondasunak besarkatzen, LHLren 113.2 artikulua arabera jaso behar lituzkeenak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2011ko abenduaren 31n “Erabilera orokorrerako ondareak” 8,2 milioi euroren saldoa du. Kontu honetan ez da eragiketarik egin 2001eko ekitaldiaz geroztik. Udalak “Erabilera orokor ez produktiborako emandako azpiegitura, ondasun eta ondare historikoa” 20 azpitaldeko kontuei baja eman behar lieke eta kontura aldatu horiek abian jarri zirenean erabilera orokorrera emandako inbertsioen balioa.

- Erakunde autonomoek ez dituzte dagozkien kontzeptu ekonomikoetan behin-behineko langileen eta aldi baterako lan kontratupeko langileen ordainsariak erregistratu; eta Dantza Kontserbatorioak, gainera, ezta langile funtzionarioen ordainsariak ere, 75/2004 FDk agintzen duen moduan.

Gainera, IGIk ez du kapital diru-laguntzek eragindako sarreren erregistroa Arabako lurralde historikoko toki-erakundearen Kontabilitate Publikoaren Plan Orokor berrira egokitu, 75/2004 FDk onartutakoa.

III.1.2 LANGILERIA

- Udalbatzak hala eskatuta, 2007-2011 aldian zuzendaritzako langileen kontratazioaren legezkotasuna aztertu dugu. Epe horretan zehar gauzatutako 3 koordinatzaile orokorren eta 7 zuzendariren izendapenean azaleratu da 5 kasutan ez zutela karrerako funtzionario izaera eta beste 5etan, izendapena ez da egin karrerako funtzionarioen artean, zeini sartzeko doktore, lizentziatu, ingeniari edo pareko titulazioa eskatzen zitzairen. Hauetako kasu bakar batean ere ez da izendapen horiek baimenduko dituen Udalbatzaren erabakirik egon, zuzendaritza postuko ezaugarri bereziei dagokienez. Gainera, izendapen erabakietan ez dago berariazko arrazoitzerik kudeaketa publiko edo pribatuan erantzukizuneko postuak betetzean gaitasun profesional eta eskarmentuzko irizpideak oinarri hartuta, TAOALen 130.3 artikulua agintzen duen moduan (ikus A.6).
- 2005eko azaroan argitaratu zen azkeneko aldiz Udalaren LZ ALHAOn. Orduz geroztik, LZk hainbat aldaketa jasan ditu. Inguruabar hau bera gertatzen da IGIn eta Dantza Kontserbatorioaren LZn, hasiera batean, hurrenez hurren, 1995ean eta 1997an onartu zirenak. IGIn, gainera, aldaketa horietako bat (Udaleko funtzionario postu bat 2007an berratzkitzea) ez da ALHAOn argitaratu eta LZk ez du lanpostu bakoitzari dagokionez esleitutako hizkuntza-eskakizuna jasotzen, EFPLren 15.1 artikulua agintzen duen moduan. Gomendagarria litzateke egindako aldaketa guztiak eta lanpostu bakoitzaren betekizunak jasoko dituen LZ argitaratzea, EFPLn ezarritakoaren arabera.
- Udalaren LZk ez du Aurrekontu, kontabilitate eta kostuen buru postua estatu mailan jarduteko gaitasuna duen funtzionario batentzat gordetzen, Gobernuaren Erregelamendu Organikoaren 49.2 artikulua eta Udalaren Administrazioak baldintza hori betetzeko eskatzen duenean kontabilitate egitekoaren ardura duen organoko funtzionario titularrarentzat.
- Musika Eskolako LZk ez ditu 2 funtzionario postu jasotzen. EFPLren 14.1 artikulua agintzen du aurrekontuan zuzkitutako lanpostu guztiak jaso behar direla LZn.
- Gasteizko Udalaren Erakunde Autonomoek ez daukate aurrekontu plantillarik, funtzionario Talde eta Kidego bakoitzari eta lan kontratupeko langileria -kasua bada-



sailkatzen den kategorietatik bakoitzari dagozkion zuzkitutako plazen zerrenda zehaztuko duena eta dagozkion kreditu zuzkidurak barne hartuko dituen, ezargarria zaion hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera ordaingarriak diren ordainketa-kontzeptuen arabera antolatuak, EFPLren 20 eta 21 artikuluetan finkatutakoa urratuz.

- Dantza Kontserbatorioan 2 funtzionario lanpostu hutsik daude. Lanpostu hauen egitekoak betetzeko programako 2 bitarteko funtzionario izendatu zituzten, bata 2000. urteaz geroztik eta bestea, 2005az geroztik, baina 2011n ordezkatu dena. Programako bitarteko funtzionario hauek betetzen dituzten egitekoak ez daitezke inola ere aldi baterakotzat jo, EFPLren 17. xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Erakundean behar iraunkorrak betetzen dituztelako.

III.1.3 KONTRATAZIOA (ikus A.16 eta A.18.2)

Espedienteak berrikustean ondoko akats orokor hauek azaleratu dira:

- Udalaren, erakunde autonomoen eta sozietate publikoen kontratugilearen profila euskarritzen duen sistema informatikoak ez du bertan jasotzen den informazioaren hedapen publikoa zein unetan hasten den modu frogagarrian egiaztatzen utziko duen gailu egokirik, SPKLren 42.3 artikulua agintzen duen moduan. Gainera, ez du administrazio bakoitzak lehiatu eta esleitutako espedienteen historikorik gordetzen.
- Azkena Rock Festival-en babesletza kontratuan, 220.000 euroan esleitu zenean, ez dago kontratuaren xede denaren kontra-prestazio ekonomikoa zenbatetsi eta justifikatuko duen txosten ekonomikorik. Gainera, fakturak eta kontratuak data bat bera dute eta zerbitzua eman aurretik ordaindu da, kontratuaren AKPParen arabera esleipen hartzaileak derrigor aurkeztu behar zuen behin-betiko bermea aurkeztu gabe (36. espedienteak).
- 3 obra kontratutan, 3,5 milioi euroan esleitutakoak, ez dira jaso proiektuen gainbegiratze eta zuinketa txostena, SPKLren 109 eta 110. artikuluek agintzen duten moduan. Azken inguruabar hau beste 2 obra kontratutan ere gertatzen da, 4,6 milioi euroan esleitutakoak (2, 4, 12 eta 8, 9 espedienteak).
- Udal igerilekuak berme osoz zaharberitu, kudeatu eta mantentzeko kontratuan, 2006ko uztailean 14,9 milioi euroan esleitutakoan, espedientearen helburuaren zati bat hainbat udal igerilekutan obrak egitea da eta horretarako lehiatzaileek zegozkion proiektuak aurkeztu behar zituzketen. 8 proiektuetatik 5etan ez da jaso obren harrera-akta eta honenbestez, ezin egiaztatu izan dugu egikaritzea epe bete denik (13. espedienteak).
- Fiskalizatu diren espedienteen AKPPetan honako huts hauek azaleratu dira:
 - Guztira 2,8 milioi euroan esleitutako 3 obra kontratutan, ez da prezioa irizpidearen haztapena ezartzen; nola baloratu den soilik baizik. Horregatik, ezin zehatz daiteke irizpide automatikoek automatikoak ez diren haiek baino pisu gutxiago duten eta horregatik beharrezkoa ote zen edo ez adituen batzordeak esku hartzea, SPKLren 134. artikulua aurreikusten duena (2, 3 eta 4 espedienteak).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Udalak esleitutako 12 kontratutan, bat aleko prezioetan eta 11 guztira 27,4 milioi euroan, eta IGIk 405.252 euroan esleitutako 2 kontratutan, prezio irizpidea balio-neurtzeko baliatutako formulak ez ditu eskaintza ekonomikoenak balioztatzen merkatze ehuneko jakin batzuetatik aurrera (%5 eta % 30 bitartean kontratuaren arabera) (Udalaren 1, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 23, 25, 26, 31 espedienteak eta IGIaren 1, 5 espedienteak). Udalak 35,1 milioi euroan esleitutako beste kontratu batek zigortu egiten ditu eskaintzak aurkeztutako eskaintzen batez bestekoarekiko gertutasunaren arabera (17. espedienteak).
- Administrazioiko kontratu berezi modura sailkatutako 2 kontratutan, guztira 4,7 milioi euroren zenbatekoarekin esleitutakoak, esleipen irizpide modura, besteak beste, enpresaren kaudimen irizpideak balioztatu dira, esate batera antolaketazko eta kudeaketazko egitura, enpresaren estaldura eta laguntza teknikoa eta gainbegiratze plana, edo kalitatea hobetzeko planak eta/edo erakundearen plan estrategikoa, erakundearen berariazko laneko arriskuak aurreikusteko plana, erakundearen berariazko berdintasun plana eta erakundearen aldetik berariazko izaera pertsonaleko datuak babesteko plana (29, 31 espedienteak).
- IGIk guztira 507.077 euroan esleitutako 3 kontratutan, esleipen irizpide modura egin asmo diren hobekuntzak jaso dira, baina nola balioztatuko diren alde aurretik zehaztu gabe (2, 3 eta 6 espedienteak).
- Flotarentzako erregaia hornitzeko kontratuan, 653.626 euroan esleitutakoan, betetzeko baldintza modura lehiatzaileak lurralde nazional osoan hornigailuak geografikoki ezarriak izatea eskatzen da. Betekizun honek ez du justifikaziorik, proportzionaltasunik eta egokitasunik kontratuaren xedearekiko, izan ere, erregai horniketak udalerrri esparruan egiten dira (14. espedienteak).
- Zerbitzu kontratu batean, Udalak aleko prezioen arabera esleitutakoan, eta IGIk 558.648 euroan esleitutako 2 kontratutan, prezioak berrikusteko erreferentziarako indizetat Kontsumorako Prezioen Indizea hartzen du; ordea, SPKLren 78.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, berrikusketak ez dezake gaintu hartutako indizeak izandako bariazioaren % 85 (Udalaren 19. espedienteak eta IGIren 3 eta 5).
- Guztira 13,3 milioi euroan esleitutako 3 obra kontratutan aurreikusitako hasierako epea amaitu ostean kontratuaren epe luzaketak onartu dira (3, 4 eta 11. espedienteak). Gainera, 11,3 milioi euroan esleitutako batean eta 9,6 milioi euroan esleitutako beste 6tan, atzeraldiak izan dira egikaritzan dagozkion epe luzaketak onartu izana inon ageri ez dela (1, 2, 5, 6, 7, 11, 12 espedienteak).
- 5 kontraturen gainean egindako 7 aldaketa ez dira administrazioiko agiri bidez gauzatu, guztira 4,2 milioi euroren zenbatekoan (13, 17, 25, 32, 34 espedienteak). Bestalde, 3 kontraturen gainean egindako 8 aldaketetan, guztira 3,9 milioi euro egin dituztenetan, ez da behin betiko bermea egokitu (17, 32, 34 espedienteak).
- 11,3 milioi euroan esleitutako obra kontratu baten azken ziurtagiria ez du dagokion kontratazio atalak onartu eta obra hartu zenetik 2 hilabeteko epea gaintu da, APKLTBren 147.1 artikulua ezartzen duena (11. espedienteak).



- Gardelegiko hondakin solidoen zabortegia ustiatzeko kontratuan 2009tik aurrera egindako prezioen berrikusketak ez dira behar bezala onartu (35. espedientea). Bestetik, ALHko hiri hondakinak biometanizazio eta konposta bidez Gasteizko tratamendu plantaren proiektua idatzi, obrak egin eta ustiaketaren emakida kontratuan ez dira 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietako ustiaketa kanonari dagozkion prezio berrikuspenak onartu, eta txosten hau idatzi dugun datan ebazteko dago esleipendunak horren gainean egin duen erreklamazioa (33. espedientea).

III.1.4 DIRU-LAGUNTZAK (ikus A.8)

- Udalaren aurrekontuan barne hartutako 2011ko ekitaldirako diru-laguntzen plan estrategikoak ez ditu DLOren 8. artikulua eta Diru-laguntzen Udal Ordenantzaren 3. artikulua ezarritakoaren arabera jaso beharko lituzkeenak.

Bestetik, 2011ko ekitaldian 3,2 milioi euroren diru-laguntzak eman dira, plan estrategikoan barne hartu gabe zeudenak; ez da, baina, behar bezala justifikatu horien emakida, AEUAren 13.1 artikulua agintzen duen moduan.

- Gasteizko hiriguneko enpresa txikiak ezarri, modernatu eta berritzeko laguntza ekonomikoak arautzen dituzten oinarri arauak, 2011n guztira 338.680 euroan esleitu zirenek, ez dituzte emakidarako irizpide objektibo eta haztatuak bereizten, baizik eta sarrera dataren arabera hurrenkerari jarraiki egiten da. Oinarri-arau hauek ere ez dute diru-laguntza justifikatzeko epea barne hartzen.

Guztira 2,6 milioi euroren zenbatekoan emandako 8 diru-laguntzatan ez da egiaztatu hiru eskaintza eskatzeko obligazioa diruz lagungarri den gastua zerbitzu edo hornigaietan 18.000 euroz gainetikoa bada, DLOren 31.3 artikulua agintzen duen modura.

- Magialdia nazioarteko XXIII jaialdia egiteko 227.000 diru-laguntza baten emakidarako ez da diruz lagundutako programaren aurrekonturik aurkeztu. Diru-laguntzaren xedea bete dela eta Udalak emandako funtsak zuzen erabili direla egiaztatze beharrezkoa da aurrekontuaren xehapena jakitea; baita diruz lagundutako jardueraren guztizko kostua ere.
- Udalaren eta Arabako euskal pilotako federazioaren artean euskal pilota sustatu eta udal frontoiak kudeatzeko lankidetzaren hitzarmenean, 2011n 584.300 euroren diru-laguntza eman zaiona, ez da diru-laguntza justifikatzeko data ezartzen. Gainera, diru-laguntza emateko unean eta beste erakunde batzuen funtsekin elkar-finantzatzeko proiektua den aldetik, ez da funts horien zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jarduerarako baliatzen izana egiaztatu. Berebat, ez da sarrera eta gastuen urteko balantzea aurkeztu eta oroitidazki ekonomikoak ez du egindako gastu eta inbertsioen zerrendarik, hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen eta ordainketa, e.a. bereiziz.

III.1.5 BERANDUTZA ETA AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA

- Udalak eta Erakunde Autonomoek ez dituzte 2011n 15/2010 Legean agindutako txostenak egin ordainketa epeak betetzeari buruz eta hiru hilabetetik gorako epea duten aitortu eta



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

kontabilizatu gabeko erregistratutako fakturei buruz. Gainera, 2011n ordainagiriak ordaintzeko ezarritako 50 eguneko epea urratu da, izan ere, Udalak egindako kalkuluen arabera, 2. eta 6. kapituluetak fakturak ordaintzeko batez besteko epea 2011n 58,87 egunekoa izan da.

- 2011n Gasteizko Udalak (Udala, Erakunde Autonomoak eta Udal Sozietate Publikoak barne hartzen ditu) ez du aurrekontuaren egonkortasun helburua bete, Udal artekaritzak aurrekontuaren egonkortasuna betetzeari buruz jaulkitako txostenaren arabera, izan ere, ekitaldi honetan defizita edo finantzatzeko beharra sarrera ez finantzarioen % 7,35ekoa izan da, 2012ko maiatzaren 22ko Toki Administrazioko Batzorde Nazionalaren Araubide Ekonomiko, Finantzario eta Fiskaleko Azpibatzerdearen Erabaki bidez baimendutako % 4,39 baino handiagoa.

III.2 SOZIETATE PUBLIKOAK

III.2.1 AURREKONTUA, LIKIDAZIOA ETA KONTABILITATEA

- ARICH sozietateak gairitu egin ditu transferentzia eta diru-laguntzetarako kredituei dagokienez araudi erregulatuazalean ezarritako izaera mugatzaileko aurrekontu izendapenak; izan ere, 2,9 milioi euroren diru-laguntzak kitatu ditu eta 2,8 milioi euro zituen aurrekontu eginda.

III.2.2 LANGILERIA

- ARICH sozietateak bi langile finko kontratatu ditu 39/2010 Legearen 23.1 artikulua sektore publikoko langileen kontrataziorako ezarritako mugak aintzat hartu gabe.
- 2011ko ekitaldian zehar, AMVISA sozietateak aldi baterako 126 kontratazio egin ditu 8 pertsonarekin (guztira 574 egun), lanbide prestakuntzako zentroetatik eratorritako izangaiekin osatutako lan poltsetakoak zirenak.

III.2.3 KONTRATAZIOA (IKUS A.19.2)

- ARICHek 2,5 milioi euroan esleitutako 3 espedienteren pleguek, AMVISAk 30,4 milioi euroan esleitutako 5enek eta ENSANCHE 21ek 33,8 milioi euroan esleitutako pleguek prezioa balioztatzeko formula aritmetikoak ezartzen dituzte, zeinak publikoak izan arren, zehatu edo mugatu egiten dituzten eskaintzarik ekonomikoenak (1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 10, 13, 15, 16 eta 18 espedienteak).
- ARICHek 97.362 euroan esleitutako obra espediente batean ez da lizitazioa eta esleipena kontratugilearen profilean argitaratzen.
- "BAICen marketing eta erakunde nortasuna" espedientearen, ENSANCHE 21ek 2010ean 710.800 euroan esleitutakoan, ez da jaso apartekotasunaren justifikaziorik eta honenbestez, ez daiteke alde aurretik kontratuaren aurrekonturik zehaztu (SPKLren 154b) art.). Gainera, publikotasundun prozedura negoziatu bidez izapidetu den espediente honetan, DOUEn argitaratu dena, ez da behar hainbatekoa hautatutako



prozeduraren arrazoitzea eta ez dago erasota horren terminoen negoziaketarik dagoenik, pleguan aurreikusitakoa eta SPKLren 153.1 artikulua agindutakoa. Aurkeztutako eskaintzak balioztatzen dituen txosten teknikoak ez ditu pleguetan ezarritako irizpide bakoitzaren arabera puntuazioak xehatzen eta osotasunezko puntuaketak ematen ditu, behar hainbat arrazoitu gabe. Amaitzeko, kontratua hiru hilabete baino gehiagoko atzerapenez egiten da.

- AMVISAK guztira 10,8 milioi euroan esleitutako bi obra kontratutan eta 262.325 euroren hornidurako batean, irizpide modura kontratuaren xedearekin zuzenean lotu gabeko alderdiak balioztatzen dira esleipen irizpidetzat har ez daitezkeenak, hala nola, ISO ziurtagiriak izatea eta erantzun-gaitasuna bermatzeko enpresa zonaldean kokatua egotea.
- ENSANCHE 21en aztertu diren espedienteetan ez dira dagozkion aldizkarietan kontratuak argitara ematen (SPKLren 138.2 art.).
- Erosketa txikien analisia

Erosketa txiki modura izapidetutako erosketak aztertu ditugu eta ikusi dugu ARICHen 6 erosketa 217.112 euroren zenbatekoan eta ENSANCHE 21en erosketa bat 36.818 euroan, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeenak, bai kopuruagatik, bai data beretan eta hornitzaile berarekin hornigai berdinak edo antzekoak erosi zirelako.

Gainera, TUVISAK 346.842 euroren hornidurak ditu, ohikotasunez kontratatzen direnak eta horien urteko beharrezko balioetsi daitekeena lizitazioa bideratu ahal izateko, kasua balitz, aleko prezioetan.

III.2.4 DIRU-LAGUNTZAK

ARICH-i dagokionez, ondoko alderdi hauek azpimarratu nahi ditugu Alde Zaharrear laguntzak emateari dagokionez:

- Eraikuntzak zaharberritzeko, igogailuak jartzeko eta merkataritza aretoak erosi eta konpontzeko emandako laguntzak ez dira argitara ematen, 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak agintzen duen moduan. Sozietatearen iritzira, datu horiek argitaratzeak urratu egingo luke Izaera pertsonaleko datuak babesteko legeak xedatzen duena.
- Gainera, zerbitzu edo hornigaiak 18.000 eurotik gorakoak direnean eta obrak 50.000 eurotik gorakoak, ez dago diru-laguntzen onuradunek 3 eskaintza eskatu dituztelako ebidentziarik, DLOren 31.3 artikulua agintzen duen moduan.
- Alde zaharrear ibilbide muralistiko bat sortzeko irabazi asmorik gabeko elkarte bati emandako 85.000 euroren diru-laguntza baten xedea bat dator SPKLn araututako zerbitzuak emateko kontratuarekin.

III.2.5 ORUBEAK BESTERENTZEA

- Gasteizko HAPOn 4. Sektorean “Elejalde”, 19. Sektorean “Aretxabaleta-Gardelegi” eta 13. Sektorean “Larrein” hiru egoitza lursailen salmentan, ENSANCHE 21 sozietateak 2007



eta 2009ko ekitaldietan esleitutakoak eta 2011ko ekitaldian eskrituretan jasotakoak, hurrenez hurren, 2,5, 4,7 eta 3,6 milioi euroan esleitutakoak, deialdiaren oinarri-arauek haztatu gabe dauden esleipen irizpideak barne hartzen dituzte. Gainera, aurkeztutako eskaintzak balioztatzean osotasunezko puntuaketa ematen da, irizpideen arabeko puntuaketarik zehaztu gabe eta emandako puntuaketak arrazoitu gabe.

III.2.6 BERANKORTASUNA

- Uztailaren 5eko 15/2010 Legeak abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen du, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena; Lege horrek Xedapen gehigarri hirugarrenean agintzen du sozietateek berariaz argitaratu beharko dutela haien urteko kontuen Txostenean hornitzaileei ordainketak egiteko epeei buruzko informazioa. TUVISAk aipatutako legean batez bestean ezarritako legezko epea 52 egunetan gainditu du 381.903 euroren zenbatekoan.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. ERABILERA ANITZEKO UDAL ERAIKINAREN ORDENANTZA FISKALAREN ANALISIA ETA ERABILERA PRIBATIBOA EDO JABARI PUBLIKOKO APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEAGATIKO TASAREN APLIKAZIOA, 2008-TIK 2013-RA BITARTEKO EKITALDIETAN

Eusko Legebiltzarrak hala eskatuta, erabilera anitzeko udal eraikinaren ordenantza fiskalaren analisia eta erabilera pribatiboa edo jabari publikoko aprobetxamendu berezia egiteagatiko tasaren aplikazioa, 2008tik 2013ra bitarteko ekitaldietan, biak barne.

IV.1 ANÁLISIS JURÍDICO DE LA ORDENANZA FISCAL

TOAFAk Udalek jabari publikoaren erabilera pribatiboa egiteagatik edo aprobetxamendu bereziagatik tasak ezarri eta eskatzeko aukera aurreikusten du, aldez aurretik dagozkion Ordenantzak ezarri eta onartzea erabaki ostean. Tasa horiek tributuen kategorian daude jasoak eta honenbestez, horiek osatzen dituzten oinarritzko elementuen legezko erretserba printzipioari meneratuak, gure kasuan Foru Arauari.

Udalak urtero Erabilera anitzeko aretoa erabiltzeko tasa gainerako ordenantza fiskal eta prezio publikoekin batera onartu izan du, TOAFaren 16. artikulua ezartzen duen prozedura betez. 2008tik 2013ra bitarteko ekitaldietarako onartutako tarifak honako hauek dira:

	Euroak
2008 eguneko	13.950
2009 eguneko	14.578
2010 eguneko	16.765
2011 eguneko	17.100
2012 eguneko	17.630
2013:	
Aretoa osorik erabiltzea, eguneko	4.886
plaza-platearen erabilera, eguneko	2.785
Egun osoko muntaia, desmuntatzea edo ekitaldia errepik.	2.443
Entsegu eguna	1.759
Ordua gaueko	400
Bermea edo banku abala	Prezioaren % 50

2009tik 2013ra bitarteko ordenantzetan jasotzen da Udalak Ogasun eta Ekonomia alorreko zinegotzi delegatuaren Ebazpen bitartez alderdiren batek eskatutako tasen zenbatekoaren % 90 arteko hobaria eman ahal izango duela baldin eta jabari publikoaren erabilera pribatu edo aprobetxamendu berezietan erabilera publikoko erakunde izendatzeko inguruabar subjektiboak edo gizarte eta udal intereseko baldintza justifikatuak gertatzen badira. Aukera hau ez da aurreikusi 2008ko ekitaldiari dagokion Ordenantzan.

Honez gain, 2013rako ordenantzan aurreikusi da Udal, Fundazio, Elkarte edo enpresen kolaboratzaile diren erakundeak Udalarekin babesletza kontratu bat gauzatu ahal izango dutela, zergaren zenbatekoaren % 90 arte estali ahal izango duena, betiere, laguntza-gai den ekintzak hiriari aberastasuna badakarkio, batik bat, zerbitzuen sektorean eta gasteiztar kultur industrian; edota, ekintzaren ezaugarri bereziak aintzat hartuta, hiriarentzat eta hiritarrentzat interes handiko gerta baledi. Ekipamendua lagatzea kasuan-kasuan adosten



den babesletzarekin batean, ekitaldiari egindako udal ekarpen modura aurreikusiko da eta Gasteizko Udalaren eta hirugarrenen artean izenpetzen diren beste era bateko irudi kontra-prestazioa eskatuko du. Zeinahi erabaki TGBk balioztatuko du.

IV.2 TASEN APLIKAZIOA

Aldian zehar ekitaldiko eta jarduera motaren arabera garatutako jarduerak honako hauek dira:

	Euroak milakotan					
	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Udalak sustatutakoak	3	4	5	4	5	7
Ordenantzari meneratutakoak.....	2	1	-	(*) 1	(*) 9	17
Kontratua (**).....	-	-	-	-	1	1
GUZTIRA	5	5	5	5	15	25

(*) Sasaki Baskonia S.A.D.rekin partidu eta entrenamenduetarako aretoa erabiltzeko izenpetutako hitzarmena jardueratzat hartu da.

(**)Zezenketak antolatu, osorik ustiatu eta espektakuluak kudeatzeko kontratua, 2012ko martxoaren 22an esleitutako 2012tik 2015era bitarteko ekitaldietarako.

2008tik 2013ra bitarteko aldiari Erabilera anitzeko aretoan egindako ekitaldien kontzeptuan aitortutako eskubideak honako hauek izan dira: 95.438,27 euro “Kongresuen Jauregia, Printzipal Antzokia, Zezen Plazaren erabilera” 311.08 kontzeptuan eta “Zezen Plazaren alokairua” 540.03 kontzeptuan, 17.943,21 euro. Gainera, 2012 eta 2013an hurrenez hurren 6.000 eta 6.084 euro ingresatu dira “Emakiden produktua” 550.00 kontzeptupean, zezenketak antolatu, ustiatu eta espektakuluak kudeatzeko kontratuaren kanonari dagozkionak, 2012ko martxoaren 22an 2012tik 2015eko ekitaldietarako esleitutakoa.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Erabilera anitzeko aretoan 2008tik 2013ra bitarteko ekitaldietan Ordenantzara meneraturik egindako jardueren xehapena honakoa da:

JARDUERA	EKITALDI		Zenbatekoa eurotan	
	DATA	LIKIDAZIOA	ATAL EMAILEA	KITATUTAKO KOPURUA
2008. urtea				
- Arabako ostalaritza Erakusketa, Euskalia 2008	06/12tik 10era	Hobaridun tasa	Ez dago jaso	1.255,50
- Gasteiz Cup 2008 inaugurazioa	7/07	Hobaridun tasa	(1)	139,50
2009. urtea				
- Gasteiz Cup 2009 inaugurazioa	6/07	Hobaridun tasa	(1)	145,78
2011. urtea				
- Ate irekiko eguna eta 15 saskibalo partidu Saski Baskonia S.A.D.renak	09/22tik 12/31ra	Lagapena	(3)	-
2012. urtea				
- Saski Baskonia S.A.D.ren 2 saskibalo partidu	01/1etik 15era	Lagapena	(3)	-
- Merkealdien azoka-Gasteiz On	02/29tik eta 03/1etik 3ra	Lagapena	(2)	-
- Melendiren kontzertua	26/05	Hobaridun tasa	(2)	176,00
- Ikuskizuna: "Marcos Cesar Acción Motor- Show Freestyle eta auto akrobatikoak"	9/06	Hobaridun tasa	(2)	3.223,00
- Komikoak, monologorik onenak baino zerbait gehiago: Leo Harlem eta SINACIO	8/09	Hobaridun tasa	(2)	714,40
- Oztoporik gabeko aretoa	09/14tik 15era	Hobaridun tasa	(2)	266,31
- Araba Ezkontza Azoka	10/5etik 7ra	Hobaridun tasa	(2)	219,62
- MAREA+RADIO PLEBERen kontzertua	13/10	Hobaridun tasa	(2)	176,00
- Manolo Garcíaen kontzertua	30/11	Hobaridun tasa	(2)	176,00
2013. urtea				
- Saskibaloiko Errege Kopako esparru ludikoa	02/7tik 10era	Lagapena	(2)	-
- Arabako trufa beltzaren 6. azoka	16/02	Hobaridun tasa	(2)	977,20
- Hiri merkataritzaren 16. azoka/Gasteiz On	02/27 eta 28/02 03/1 eta 2	Lagapena	(2)	-
- Prestakuntzaren Europako Erakusketa Euskadi 13	03/7 eta 8	Hobaridun tasa	(2)	1.775,40
- Gran Circo Wonderland, Macaggi	03/28tik 31ra eta 04/1, 4, 5, 6 eta 7	Hobaridun tasa	(2)	2.644,50
- Apirileko azoka	04/11tik 14ra	Hobaridun tasa	(2)	5.863,20
- I Rasteiz Festi Reggae	4/05	Hobaridun tasa	(2)	(*) 1.954,40
- Kick Boxing eta Arte Martzialak	11/05	Hobaridun tasa	(2)	176,30
- V Eco Rallye Euskal Nafarra	05/31 eta 06/1	Hobaridun tasa	(2)	1.775,40
- Espiritu de Planeta jaialdia	15/05	Hobaridun tasa	(2)	(**) 3.526,02
- Horrela dantzatzan dute andaluziar zaldiek	14/06	Tasa + babesletza kontratua	(3)	8.524,45
- Melendiren kontzertua "Lágrimas desordenadas"	13/09	Tasa + babesletza kontratua	(3)	5.912,06
- Araba ezkontzak	09/20tik 22ra	Tasa + babesletza kontratua	(3)	15.193,97
- Galiziako Marisko jaialdi handia	09/27tik 10/13ra	Tasa + babesletza kontratua	(3)	44.754,27
- Oztoporik gabeko aretoa	10/24tik 26ra	Tasa + babesletza kontratua	(3)	15.000,00
- XIX. Gabonetako Haurren Festa	8/12	Hobaridun tasa	(1)	(**) 278,50
- Gimnasiako Nazioarteko Jaialdia	21/12	Hobaridun tasa	(1)	(**) 488,60
GUZTIRA				115.336,38

(1) Ogasun eta Ekonomia zinegotzia

(2) Kultur Plangintzarako Zerbitzuaren eta Jaien Sailburua 2012ko abenduaren 4ean Areako Zinegotzi izendatu zuten

(3) TGB

(*) Udal Diruzaintzan kontabilizatu eta ingresatu gabeko kopurua

(**) 2014an kontabilizatutako kopurua



2011ko urriaren 14an TGBk Udalaren eta Saski Baskonia, SADren artean hitzarmen bat izenpetzeko baimena eman zuen, Iradier Arena 2011ko irailaren 22 eta 2012ko urtarrilaren 15 bitartean entrenamendu, saskibaloiko partidu eta kirol horri lotutako bestelako jardueretarako erabiltzeko, tasarik kobratu gabe, harik eta Fernando Buesa Arenako lanak zirauten bitartean. Trukean, Saski Baskonia, SADk konpromisoa hartu zuen "Iradier Arena Vitoria-Gasteiz" izena lehentasunez azaltzeko kirol aretoan eta baita, Udalak ezarritako erakunde irudia ere lehentasunez aretoko publizitate gune guztietan azaltzekoa, batik batik, telebista eta grafikoko emanaldietan ikus-eremu handien zuten espazioetan; baita, jarduerarekin eta instalakuntzarekin lotutako publizitatean ere.

Bestetik, 2012ko urriaren 15ean akordioa izenpetu zen ACBren, Gasteizko Udalaren eta Saski Baskonia, SADren artean Saskibaloiko Errege Kopa 2013ko otsailaren 7 eta 10 bitartean Gasteizen egiteko. Izenpetu ziren erabakien artean zegoen Udalak ACBren eskura, kargurik gabe, babesleek, enpresa kolaboratzaileek edo ACBren beraren enpresek jarduera ludikoak eta promoziozkoak instalatzea bideratuko zuten espazio publikoak eskura jartzea. Aipatutako espazio ludikoa Iradier Arenan koka zedin erabaki zen.

Gainera, 2012 eta 2013an Gasteiz On elkarteari kosturik gabe azoka bat egiteko aretoa hainbat egunetan erabiltzeko utzi zitzaion (muntatze eta desmuntatze egunak barne).

Gasteizko 2 zk. Epaitegiak prozedura abiarazi du fiskaltzak hala eskatuta, erabilera anitzeko aretoaren tarifetan izandako merkatzeagatik.

IV.3 ONDORIOAK

Ordenantzaren azterketa juridikoa

- 2009, 2010, 2011, 2012 eta 2013 urteetarako onartutako tasaren % 90 arteko hobariak ematea ez dago behar bezain arautua, ez baitago Foru Arau batean berariaz jasoa.
- Araudiak dagozkion zerga ordenantzak onartzeko prozedura eta horien eduki gutxienekoa arauzko aurreikuspeni egokitzen zaie.

Tasaren aplikazioa

- 2008an izapidetutako espazioa gordetzeko emakida espedienteetako bitatik batean, erabilera anitzeko aretoa erabiltzeko baimena eman zen eta 13.950 euroren ordaintzeko tasa ezarri zen, % 99ko hobaria zuena, Ogasun zinegotziaren ebazpen bitartez. Ekitaldi horretako ordenantzak ez zuen hobaria jasotzeko aukerarik bereizten. Beste espedienteetan 1.255,50 euroren zenbatekoa kitatu zen espazioa 6 egunez erabiltzeagatik, eskumena duen gobernu atalak ebatzitako dagokion ebazpenik ez dagoela eta kitatutako zenbatekoa nola kalkulatu zen zehazterik izan gabe.
- 2009an izapidetutako espedienteetan % 99ko hobaria eman zen Ogasun eta Ekonomia zinegotziaren ebazpen bitartez, interesatuak eskatu ere egin gabe; ordea, ekitaldi horretako ordenantzak % 90 arteko eskatutako hobaria ezartzen zuen.



- 2012ko 7 espedientetan eta 2013ko 8 espedientetan hobariak eman dira Kultur Plangintza eta jaietarako Kontseilariaren Ebazpen bitartez (2012ko abenduaren 4tik aurrera Zinegotzi izendatu zuten); ordea, ordenantzaren arabera horretarako eskumena zuen atala Ogasun eta Ekonomia zinegotzia zen. Gainera, hobaria emateko arrazoia ez da behar hainbatekoa, izan ere, hobaria ematea bideratzen duten inguruabarren berri eman behar da kasu berezi bakoitzean. Berebat, ez da zehazten hobaria zein oinarriren gainean ematen den eta emandako zerga-hobariaren zenbatekoaren ehunekoa.
- Sasaki Baskonia, S.A.D., ACB eta Gasteiz On elkarteari aretoa doan erabiltzeko lagapenak urratu egiten du udal ordenantzaren ezarritakoa, zeinak jabari publikoko ondasunen erabilera pribaturako tasak ezartzen dituen, zeinetan erabilera anitzeko aretoa erabiltzeagatiko tarifa zehazten den.
- TGBk baimendutako babesletza kontratuetan garbi kuantifikaturik eta justifikaturik utziko dira kontra-prestazio ekonomikoak.

V. FINANTZA ANALISIA

2010eko martxoaren 22an Udaltzakerak 2010-2013 aldirako Ekonomia-Finantza Plana onartu zuen. Gerora, 2011ko urtarrilaren 26an, ekitaldi horretarako aurrekontuak onartzearekin batean, Planaren datuak berrikusi eta gaurkotu ziren, 2013ko abenduaren 31n amaitzen den denbora-muga bera izanik.

Ondotik, Udalak 2009-2011 aldian zehar likidatutako magnitude nagusien bilakaera erakutsiko dugu.

FINANTZA ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak/biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2009(*)	2010(*)	2011	2009(*)	2010(*)	2011
Zergak (1. eta 2. kap.).....	83.274	92.906	94.391	353	390	394
Tasak eta bestelako sarrerak (3. kap.).....	57.296	51.730	56.544	243	217	236
Transf. eta dirul. arruntak (4. kap.).....	168.152	158.576	166.990	714	666	697
Ondare sarrerak (5. kap.).....	13.565	17.882	28.247	58	75	118
A. Diru-sarrera arruntak.....	322.287	321.094	346.172	1.368	1.348	1.445
Langileria gastuak (1. kap.).....	138.908	138.473	136.174	589	581	568
Ondasun arrun. erosk. eta zerb. (2. kap.).....	129.058	126.112	128.414	548	529	536
Transf. eta dirul. arruntak (4. kap.).....	62.175	49.088	47.219	264	206	197
B. Funtzionamendu gastuak.....	330.141	313.673	311.807	1.401	1.316	1.301
Aurrezki gordina (A-B).....	(7.854)	7.421	34.365	(33)	32	144
Finantza gastuak (3. kap.).....	(2.708)	(3.214)	(4.081)	(11)	(13)	(17)
Emaizta arrunta.....	(10.562)	4.207	30.284	(44)	19	127
Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	(4.761)	(5.036)	(5.861)	(20)	(21)	(24)
Aurrezki garbia.....	(15.323)	(829)	24.423	(64)	(2)	103
Inbertsio errealeen besterentzea (6. kap.).....	1.643	9.003	121	7	38	1
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	48.882	32.374	11.412	207	136	48
Inbertsio errealak (6. kap.).....	(87.881)	(59.161)	(26.875)	(373)	(248)	(112)
Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	(14.984)	(15.582)	(11.394)	(64)	(65)	(48)
Kapital eragiketen emaitza.....	(52.340)	(33.366)	(26.736)	(223)	(139)	(111)
Diruzaintzako geldikina.....	23.138	9.095	5.978	98	38	25
Zorpetzea.....	109.592	140.744	140.795	465	591	588
Erabili gabeko zorra.....	-	5.506	10.934	-	23	46
Erabilitako zorpetzea.....	109.592	135.238	129.861	465	568	542

(*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: Aztergai izan dugun aldian % 7,41 gehitu dira. Sarrera arrunten kapituluetan 2011n izan diren aldaketa handienak aurreko ekitaldiarekiko honako hauek izan dira:



- Zergen kontzeptuetan aitortutako eskubideek % 1,60ko igoera garbia izan dute. Zerga kontzeptuko xehapena honakoa da:
 - OHZ kontzeptuarekin aitortutako eskubideek % 3,36 egin dute gora, batik bat, katastro balioa % 1,02 eta katastro erreferentziak % 2,81 gehitu direlako, tipo zergagarria ez baita aldatu. 2005eko ekitaldian kontzeptu honen izenean aitortutako eskubideen zenbatekoa zerga guztien % 17,22koa izan da.
 - 2011ko ekitaldian, TMIZ kontzeptuan aitortutako eskubideek % 1,96 egin dute gora, 2010arekiko tarifak % 2 gehitu izanaren ondorioz. 2011ko ekitaldian kontzeptu honen izenean aitortutako eskubideen zenbatekoa zerga guztien % 15,08koa izan da.
 - HILBIZ kontzeptuan aitortutako eskubideak % 8,45 igo dira, tipo zergagarriak % 2,01 egin duelako gora eta 2011n jada ez zelako lurzorua katastro balioaren gainean % 40ko murrizketa ezarri (zerga honen oinarri zergagarriaren elementu nagusia) izaera orokorreko balorazio kolektiboko prozedura baten indarrez aldarazitako balioen kasurako. Murrizketa hau aurreko 5 ekitaldietan ezarri zen. 2011ko ekitaldian kontzeptu honen izenean aitortutako eskubideen zenbatekoa zerga guztien gainean % 17,38koa izan da.
 - JEZ kontzeptuan aitortutako eskubideek 2011n % 6,04 egin dute behera aurreko ekitaldiarekiko, batik bat, higiezinaren sustapen jarduerak eta zerga hori eragiten duten jarduerak behera egin izanaren ondorioz; baita, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera zerga honen kontzeptuko kitapenek ez dutelako gehiago ganbera gairak izenekoak jasotzen, idazpuru edo jardueraren gainean % 3,5 egiten zuena, eta murriztu egin delako jaulkitako errolda ziurtagirien kopurua. 2010eko ekitaldian kontzeptu honen izenean aitortutako eskubideen zenbatekoa zerga guztien gainean % 12,87koa izan da.
 - EIOZ hau ekitaldi bakoitzean ematen diren eraikuntza baimenen baitakoa da eta, honenbestez, merkatuko fluktuazioetara meneratua dago, egungo egoerak atzeraldi ekonomikoa bizi duela. 2011n aitortutako eskubideek % 5,89 egin dute behera 2010arekiko, nahiz tipo zergagarria % 2,12 hazi den. Kontzeptu honen izenean aitortutako eskubideen zenbatekoa zerga guztien gainean % 10,70koa izan da.
- Tasak eta bestelako sarrerak kapituluan aitortutako eskubideek % 9,31 egin dute gora 2010ekoaren aldean, besteak beste, 2011ko aurrekontuari 2000tik 2010era bitartean “Nomina itzulketak” aurrekontuz kanpoko kontuan metatutako kopuruei dagozkien 1,1 milioi euro ezarri zaizkiolako eta AMVISARI guztira 2,1 milioi euro fakturatu zaizkiolako Udalak eta AMVISA aurreko zerbitzuek euskarritutako gastuak eragin izanaren ondorioz.
- Transferentzia arrunten kapituluan aitortutako eskubideek % 5,31 egin dute gora 2010arekiko. Igoera hau AFAtik eratorritako transferentziek gora egin dutelako gertatu da (% 12,15), batik bat TEFFFFk, % 18,61 egin baitu gora. Alabaina, oraindik erregistratzeko dagoen TEFFFFren 7,6 milioi euroren likidazio negatiboa aintzat hartuz gero, kapitulu honetan aitortutako eskubideek apenas izango zuketena aldaketarik. Gainerako kontzeptuek behera egin dute 2010ekoekiko.
- Ondare sarreren kontzeptuan aitortutako eskubideek % 57,96 egin dute gora 2010arekiko, batik bat, udalaren partaidetza duten enpresen mozkinetako partaidetzak (AMVISA eta



ENSANCHE 21en dibidenduak 2010ean 16,1 milioi euro izatetik 2011n 26,5 milioi izatera aldatu direlako.

Funtzionamendu gastuak: Aztertutako epean beheraldia % 5,55koa izan da eta 2011n 2010arekiko beheraldia % 0,59koa izan da. Langile gastuek, ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa gastuek eta gastu arruntetarako transferentzia eta diru-laguntza gastuek behera egin dute aztertutako aldian, hurrenez hurren, % 1,97, % 0,50 eta % 24,05ean.

Aurrezki gordina: Aztergai izan dugun aldian, sarrera arrunten eta funtzionamendu gastuen arteko aldea 2009an 7,9 milioi euro negatiboa izatetik, 2011n 34,3 milioi euro positibo izatera aldatu da. Egoera hau sarrera arruntak % 7,41 gehitu izanak eragin du, funtzionamendu gastuek % 5,55 behera egitearekin batera.

Aurrezki garbia: Aurrezki garbia aurrekontuaren likidazioaren datuekin kalkulatu dugu. Kopuru honek finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du (interesak eta zorraren amortizazioa, hurrenez hurren gastuen 3. eta 9. kapituluetan kontabilizatzen direnak) eta Udalak baliabide arrunten bidez inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du. aztergai izan dugun aldian, magnitude hau 2009an 15,3 milioi euroren zenbateko negatiboa izatetik 2011n 24,4 milioi euro positibo izatera aldatu da, aurrezki gordinak izan duen igoaldi handiaren ondorioz, nahiz finantza zamak ere % 20,51ko igoera izan duen.

Alabaina, erakunde baten kaudimen analisisian aurrezki garbia erabiltzeko gogoan izan behar da, baita ere, sarrera arrunten kapituluetan kontabilizatutako eskubide aitortuak daudela, kapital gastuak finantzatzen dituztenak. Udal honen kasuan aparteko interesa dute ENSANCHE 21en dibidendu bidezko diru-sarrerak, 2011ko ekitaldian 26,5 milioi euro egin dituztenak, LUOren norakoei atxikiak daudelako, LHLren 115. artikulua arabera. Inguruabar hau aintzat hartuta, 2011ko abenduaren 31n aurrezki garbia negatiboa litzateke 2,1 milioi euroren zenbatekoan.

Kapital eragiketen emaitza: Magnitude honen emaitza negatiboak erakusten du inbertsio eta kapital transferentzietan egindako gastua eskuratutako kapital diru-sarrerak baino handiagoa izan dela.

Aztertutako aldian emaitza negatiboak % 48,92 egin du behera, "Inbertsio errealak" 6. kapituluaren aitortutako obligazioek izan duten beheraldi handiaren ondorioz, izan ere, 2009an 87,9 milioi izatetik 2011n 26,9 milioi izatera aldatu da. Bestetara, esanguratsua izan da aztertutako aldian "Kapital transferentziak" 7. kapituluaren aitortutako eskubideek izan duten % 76,69ko beheraldia, izan ere, 2009an 48,9 milioi izatetik 2011n 11,4 milioi izatera aldatu da



Diruzaintza geldikina: Aztertutako aldian magnitude hau % 74,03 murriztu da, 2009an 23,1 milioi euro egitetik, 2011n 6 milioi euro egitera, 17,2 milioi euro negatibo HKEE honek proposatutako doiketak aintzat hartuta.

Zorpetzea: Aztertutako aldian finantza erakundeekiko zorpetzeak % 18,52 egin du gora, eta 2009an 109,6 milioi eurorena izatetik 2011n 129,9 milioi eurorena izatera aldatu da. Udal sozietate publikoen finantza zorpetzea 8,6 milioi eurorena izan zen 2011ko abenduaren 31n.

Ondorioa: Udal baten finantza egoera etorkizuneko inbertsio programak finantzatzeko gaitasunari dagokionez, honako aldaki hauek zehazten dute: Aurrezki garbiak, Diruzaintza geldikinak eta Zorpetzeak.

Beharrezkoa da aurrezki garbia eskuratzea inbertsio eta kapital transferentzien gastuak finantzatzeko, zorpetzea baliatu nahi ez bada, behintzat. Udalak aztertutako aldian gastuari eusteko ahalegina egin du, 2011n diru-sarrerek gora egitearekin batera, aurrezki garbiak bilakaera positiboa izatea bideratu duena; ordea, atxikitako diru-sarrera arruntak daudela aherentzi gabe.

2012ko ekitaldiaren likidazioan (fiskalizatu gabea), funtzionamendu gastuen beheranzko joerak bere horretan eutsi dio eta 33,1 milioi euroren aurrezki garbi positiboa izatea ahalbideratu du (3,1 milioi euro ENSANCHE 21etik eskuratutako dibidenduak aintzat hartuz gero), nahiz sarrera arruntek behera egin duten eta finantza zamak gora egin duen. Aurrezki garbi honek finantzatu ditu kapital gastuak, 2011koekiko % 47,55 murriztu direnak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

VI. URTEKO KONTUAK

VI.1 UDALA

UDALA

2011-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA					GABEA	KOBRA. EXEK.	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	KITAT.	KOBR.			
1. Zerga zuzenak	A.3	83.675	-	83.675	84.286	70.582	13.704	101	
2. Zeharkako zergak	A.3	12.408	-	12.408	10.105	6.315	3.790	81	
3. Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	61.310	492	61.802	56.544	48.563	7.981	91	
4. Transferentzia arruntak	A.4	164.175	2.192	166.367	166.990	165.500	1.490	100	
5. Ondare sarrerak	A.15	31.647	1.197	32.844	28.247	27.839	408	86	
6. Egiazko inbertsioen besterentzea	A.5	23.000	-	23.000	121	66	55	1	
7. Kapital transferentziak	A.4	18.300	12.378	30.678	11.412	3.658	7.754	37	
8. Finantza aktiboak	A.11	275	9.054	9.329	240	240	-	(*)87	
9. Finantza pasiboak	A.12	22.545	12.978	35.523	5.912	-	5.912	16	
GUZTIRA		417.335	38.291	455.626	363.857	322.763	41.094	(*)81	

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Geldikin bidez finantzatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA					ORDAIN. GABE	EXEK.	%
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.			
1. Langileria-gastuak	A.6	134.489	2.537	137.026	136.174	136.174	-	99	
2. Ondasun arrunten erosketak eta zerb.	A.7	137.690	(674)	137.016	128.414	105.044	23.370	94	
3. Finantza gastuak	A.12	3.892	189	4.081	4.081	4.081	-	100	
4. Transferentzia arruntak	A.8	52.609	(736)	51.873	47.219	41.815	5.404	91	
6. Inbertsio errealak	A.9	67.782	30.075	97.857	26.875	21.722	5.153	27	
7. Kapital transferentziak	A.8	14.348	7.442	21.790	11.394	10.138	1.256	52	
8. Finantza aktiboak	A.11	663	(542)	121	22	22	-	18	
9. Finantza pasiboak	A.12	5.862	-	5.862	5.861	5.861	-	100	
GUZTIRA		417.335	38.291	455.626	360.040	324.857	35.183	79	

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.		KOBRA./		AZKEN
		ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA	
Zordunak	A.13	87.095	5.879	37.480	43.736	
Hartzekodunak		59.454	1	52.108	7.345	
AURREKONTU ITXIAK		27.641	5.878	(14.628)	36.391	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak	363.857
Aitortutako obligazioak	(360.040)
Eskubideen balio gabetzea aurrekontu itxietan	(5.879)
Obligazioen balio gabetzea aurrekontu itxietan.....	1
AURREKONTUAREN EMAITZA	(2.061)
EMAITZARI DOIKETAK	
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioak	17.555
Finantzaketa desbideratzeak	(1.272)
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	14.222

DIRUZAINZTA GELDIKINA	Euroak milakotan
KOBRAZTEKO DAUDEN ZORDUNAK:	
Sarreraren aurrekontutik, arrunta (A.13)	41.094
Sarreraren aurrekontutik, itxia (A.13)	43.736
Aurrekont. ez diren beste hainbat eragiketakoak	-
(Zalantza kobragarritasuneko saldoak) (A.13)	(5.306)
GUZTIRA (A)	79.524
ORDAINTZEKO DAUDEN HARTZEKODUNAK:	
Gastuen aurrekontukoa, arrunta	35.183
Gastuen aurrekontukoa, itxiak	7.345
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak (A.14)	45.534
GUZTIRA (A.8)	88.062
DIRUZAINZAKO FUNTS LIKIDOAK (C) (A.15)	14.516
DIRUZAINZTA-GELDIKINA (D=A-B+C)	5.978
ERAGINPEKO FINANTZAKETA DUTEN GASTUETARAKO GELDIKINA (E)	1.339
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA (D-E)	4.639

KONPROMISO KREDITUEN GASTUEN EGOERA (A.17)	Euroak milakotan			
	2012	2013	2014	GUZTIRA
4. kapitulua	150	-	-	150
6. kapitulua	78.545	75.642	37.825	192.012
7. kapitulua	900	-	-	900
GUZTIRA	79.595	75.642	37.825	193.062

	Euroak milakotan
2011.12.31-N ZORPETZEA (A.12)	140.795



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2011 ETA 2010-EKO ABENDUAREN 31-N Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA 2011.12.31 2010.12.31		PASIBOA	ERANSKINA 2011.12.31 2010.12.31	
IBILGETUA	997.891	996.622	FUNTS PROPIOAK	863.074	863.849
Erab. or. em. azp. onds. & ond.A.10	68.867	68.253	Ondarea.....	617.759	617.633
Ezmateriala.....A.10	24.293	25.339	Lagatako ondarea.....	(1.403)	(1.403)
Materiala.....A.10	747.372	745.693	Erabil. Orokor. emandako ondarea.....	(8.186)	(8.186)
Indarrean dagoen materiala.....A.10	15.433	15.433	Aurrek. Itxien emaitza posit.....	255.805	261.437
Finantza inberts. iraunkorrak.....A.11	141.926	141.904	Galera-irabaziak.....	(901)	(5.632)
			HARTZEKODUNAK EPE LUZERA	127.979	134.883
			Epe luzeko bestel. zorrak.....	A.12 127.979	134.883
ZORDUNAK	95.468	81.747	HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA	116.822	103.566
Aurrekontuko zordunak.....A.13	84.830	87.095	Kreditu erakundeekiko zorrak.....	A.12 12.816	5.861
Bestelako zordunak.....	27	26	Aurrekontuzko hartzekodunak.....	42.528	59.454
Aplikatzeko dauden ordaink.....	15.917	-	Hartzekodun ez aurrekontuzkoak.....	19.636	9.234
- Zuzkidurak.....A.13	(5.306)	(5.374)	Aplikatzeko dauden fakt. hartz.....	15.917	-
			Administrazio publikoak.....	4.277	4.323
			Bestelako hartzek.....	17.076	19.690
			Jasotako bermeak eta gordailuak.....	4.572	5.004
FINANTZA-KONTUAK	14.516	23.929			
Diruzaintza.....A.15	14.516	23.929			
AKTIBOA	1.107.875	1.102.298	PASIBOA	1.107.875	1.102.298

2011 eta 2010eko ekitaldietako GALERA-IRABAZIEN KONTUA Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSKINA			SARRERAK	ERANSKINA		
		2011	2010			2011	2010
Langileria-gastuak.....	A.6	136.578	138.906	Zerga kudeaketako sarrerak.....	A.3	112.511	110.192
Ibilg. amortizaziorako zuzkidura.....	A.9	17.515	17.916	Zerbitzu emakida.....	A.3	26.359	23.225
Trafiko zuzkidur. aldaketa.....	A.13	5.306	5.374	Itzulerak.....	A.3	3.048	2.439
Kanpoko zerbitzuak.....	A.7	128.010	125.679	Kudeak. beste sarrera batzuk.....	A.3	10.598	10.300
				Kapitaleko partaidetzen sarrerak....	A.15	26.468	16.059
Finantza gastuak.....	A.12	4.081	3.214	Bestel. interesak eta antzeko sarrerak	A.15	465	456
Transferentziak eta diru-laguntzak	A.8	58.613	64.670	Transferentziak eta diru-laguntzak .	A.4	178.402	190.950
Aurreko ekitald. galerak.....		5.990	8.499	Beste ekit. batzuetako mozkinak....		85	62
Ibilgetutik eratorritako galerak.....	A.9	8.118	328	Aplik. trafiko kaudimengab.....	A.13	5.374	5.271
GASTUAK		364.211	364.586	SARRERAK		363.310	358.954
				Ondare emaitza, galera		901	5.632



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTU EMAITZAREN ETA ONDARE EMAITZAREN ARTEKO BERDINKATZEA Euroak milakotan

AURREKONTUAREN EMAITZA		(2.061)
+ Balantzeari egotzitako obligazio aitortu garbiak		7.198
Erabilera orokorrera emandako inbertsioak	614	
Ibilgetu ezmaterialak	2.293	
Ibilgetu materialak	15.855	
Finantza inbertsio iraunkorrak	22	
Ibilgetua amortizatzeko zuzkidura	(17.515)	
Trafiko kaudimengab. hornitzeko zuzk.....	(5.306)	
Epe luzeko zorren amortizazioak	5.861	
Aplik. trafiko kaudimengab.	5.374	
- Balantzeari egotzitako eskubide aitortu garbiak		(6.038)
Ondarea	126	
Finantza pasiboen aldak.....	5.912	
ONDAREAREN EMAITZA		(901)

VI.2 TOKI ERAKUNDE AUTONOMOAK

2011-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

KITATUTAKO ESKUBIDEAK	IGI	MUSIKA	DANTZA
		ESKOLA	KONTSERBATORIOA
3. Tasak eta bestelako sarrerak	15	344	124
4. Transferentzia arruntak	4.431	593	303
5. Ondare sarrerak	6	7	4
7. Kapital transferentziak	1.499	-	5
GUZTIRA	5.951	944	436

Euroak milakotan

AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK	IGI	MUSIKA	DANTZA
		ESKOLA	KONTSERBATORIOA
1. Langileria-gastuak	1.073	1.181	669
2. Ondasun arrunten erosketak eta zerb.	2.203	98	43
4. Transferentzia arruntak	89	-	1
6. Inbertsio errealak	664	6	7
GUZTIRA	4.029	1.285	720



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	IGI	MUSIKA ESKOLA	DANTZA KONTSERBATORIOA
ZORDUNAK			
Hasierako zorra.....	4.133	81	36
Baliogabetzeak	(2.952)	-	-
Kobrantsak.....	(453)	(19)	-
Azken zorra	728	62	36
HARTZEKODUNAK			
Hasierako zorra.....	264	17	6
Baliogabetzeak	-	-	-
Ordainketak.....	264	(17)	(6)
Azken zorra	-	-	-

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

	IGI	MUSIKA ESKOLA	DANTZA KONTSERBATORIOA
Eskubide kitatuak.....	5.951	944	436
(Aitortutako obligazioak).....	(4.029)	(1.285)	(720)
(Eskubideen baliogabetzea aurrekontu itxietan)	(2.952)	-	-
Eskubideen baliogabetzea aurrekontu itxietan	-	-	-
AURREKONTUAREN EMAITZA	(1.030)	(341)	(284)
EMAITZARI DOIKETAK			
Diruz. Geldikinarekin finantzaturako obligazioak.....	1.117	-	-
Finantzaketa desbideratzeak	-	-	-
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	87	(341)	(284)

DIRUZAINZTA GELDIKINA

Euroak milakotan

	IGI	MUSIKA ESKOLA	DANTZA KONTSERBATORIOA
KOBRATZEKO DAUDEN ZORDUNAK:			
Diru-sarrerren aurrekontukoa, arrunta.....	2.390	-	-
Sarrerren aurrekontukoak, itxiak	728	62	36
Aurrekont. ez diren beste hainbat eragiketetakoaak	-	-	-
(Zalantzako kobragarritasuneko saldoak)	(1.683)	(62)	-
GUZTIRA (A)	1.435	-	36
ORDAINTZEKO DAUDEN HARTZEKODUNAK:			
Gastuen aurrekontukoa, arrunta.....	171	6	-
Gastuen aurrekontukoa, itxiak	-	-	-
Aurrekont. ez diren beste hainbat eragiketetakoaak	96	73	49
GUZTIRA (A.8)	267	79	49
DIRUZAINZTAKO FUNTS LIKIDOAK (C)	361	158	102
DIRUZAINZTA-GELDIKINA (D=A-B+C)	1.529	79	89
FINANTZAKETA ATXIKIA DUTEN GAST. GELDIKINA (E)	-	-	-
GASTU OROKORRETARAKO GELDIKINA (D-E)	1.529	79	89



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2011-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	IGI	MUSIKA ESKOLA	DANTZA KONTSERBATORIOA
IBILGETUA	13.709	138	201
Ibilgetu materiala	13.709	138	201
EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	-	4	-
AKTIBO ERABILKORRA	3.486	220	139
Aurrekontuko zordunak	3.118	62	36
Hartzekodun ez aurrekontuzkoak	7	-	1
Diruzaintza	361	158	102
AKTIBOA	17.195	362	340
FUNTS PROPIOAK	(1.228)	283	290
Erretsebak	637	663	588
Ekitaldiaren emaitza	(1.865)	(380)	(298)
HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO SARRERAK	18.148	-	-
Kapital diru-laguntzak	18.148	-	-
HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA	274	79	50
Aurrekontuzko hartzekodunak	171	6	-
Administrazio publikoak	103	66	48
Hartzekodun ez aurrekontuzkoak	-	7	2
ALDIZKAPENENGATIKO DOIKETAK	1	-	-
PASIBOA	17.195	362	340



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2011-KO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	IGI	MUSIKA ESKOLA	DANTZA KONTSERBATORIOA
ZOR			
Langileria-gastuak	1.073	1.181	669
Kanpoko zerbitzuak	2.203	98	43
Ibilgetua amortizatzeko zuzkidura.....	1.377	45	21
Transferentzia arruntak	89	-	1
Ekitaldi itxien emaitzak.....	2.952	-	-
GASTUAK	7.694	1.324	734
HARTZEKOAK			
Zerbitzu emakida	15	344	124
Sarrera finantzarioak.....	6	7	4
Transferentzia arruntak	4.431	593	303
Emaitzari aplikatutako kapital transferentziak.....	1.377	-	5
SARRERAK	5.829	944	436
Emaitza: (Galera)/Mozkina	(1.865)	(380)	(298)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

VI.3 SOZIETATE PUBLIKOAK

EGOERAREN BALANTZEA 2011-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	AMVISA	TUVISA	ARICH	ENSANCHE 21	GILSA
AKTIBO EZ ARRUNTA	168.709	9.044	3.723	2.477	2.843
lbilgetu ukiezina.....	663	470	12	70	1
lbilgetu materiala.....	168.035	8.550	3.380	2.307	13
lbilgetuko inbertsioak.....	-	-	-	-	2.602
Finantza inbertsioak epe luzera.....	11	24	331	100	227
AKTIBO ARRUNTA	32.843	3.970	19.109	276.293	42.715
Izakinak.....	188	307	16.982	164.851	39.340
Merkatar. zordunak eta kobratzeko knt.	26.248	1.378	541	33.240	98
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/lab.	4.700	(1)	-	-	-
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	3	-	136	67.462	-
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak .	1.704	2.215	1.450	10.740	3.277
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	-	71	-	-	-
AKTIBOA	201.552	13.014	22.832	278.770	45.558
ONDARE GARBIA	184.493	5.112	18.079	159.151	42.873
Berezko funtsak	48.717	2.164	389	159.151	42.873
Kapital soziala.....	558	84	60	127.710	21.009
Erretserbak	41.847	5.145	225	30.177	22.992
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	-	(2.613)	-	-	(845)
Ekitaldiaren emaitza.....	6.312	(452)	104	1.264	(283)
Diru-lag., dohaint. eta jasotako legat.	135.776	2.948	17.690	-	-
PASIBO EZ ARRUNTA	10.664	4.367	2.834	62.779	2.661
Epe luzeko hornidurak	3.561	123	105	-	2.602
Epe luzeko zorrak	7.103	4.244	2.729	18.592	59
Aldizkakotzeak epe luzera.....	-	-	-	44.187	-
PASIBO ARRUNTA	6.395	3.535	1.919	56.840	24
Epe laburreko zuzkidurak.....	442	15	-	16	-
Zorrak epe laburrera	72	1.466	513	16.756	-
Merkat. hartzek. eta ordaintzeko bestel. zorrak ...	5.881	2.054	1.162	40.068	24
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	-	-	244	-	-
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	201.552	13.014	22.832	278.770	45.558



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2011-KO EKITALDIAREN GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	AMVISA	TUVISA	ARICH	ENSANCHE 21	GILSA
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	22.198	5.102	2.159	3.206	-
Izakinen bariazioa	-	-	1.903	11.141	-
Enpresak aktiborako egindako lanak	-	-	-	1.504	-
Hornidurak	(6.173)	(2.903)	(5.928)	(20.517)	(16)
Bestelako ustiaketa sarrerak	534	15.774	11.755	7.046	143
Langileria-gastuak	(3.952)	(15.291)	(995)	(1.264)	(131)
Bestelako ustiapen gastuak	(4.477)	(1.465)	(8.760)	(898)	(233)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(6.920)	(1.919)	(174)	(44)	(105)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea ..	5.163	308	174	-	-
Gehiegizko hornidurak.....	-	-	6	-	-
Ibilg. besterentz. nariadura eta emaitza	(50)	-	-	-	-
Beste emaitza batzuk	-	-	-	-	15
USTIAKETAREN EMAITZA	6.323	(394)	140	174	(327)
Sarrera finantzarioak.....	45	24	28	1.094	44
Finantza gastuak.....	(53)	(82)	(64)	-	-
EMAITZA FINANTZARIOA	(8)	(58)	(36)	1.094	44
EMAITZA ZERGA AURRETIK	6.315	(452)	104	1.268	(283)
ZERGAK	(3)	-	-	(4)	-
EKITALDIAREN EMAITZA	6.312	(452)	104	1.264	(283)



ALEGAZIOAK, GASTEIZKO UDALAREN ALKATE OHIAK 2011-KO EKITALDIAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI JARRITAKOAK.

IV.3 ONDORIOAK

ALEGAZIOA

Zezen plaza erabiltzeko baimenak zehazki 3 izan ziren, HKEEK behin-behineko txostenaren 25. orrialdean adierazitakoak. 2008 eta 2009ko ekitaldietan hiru ekitaldiren antolaketari emandakoak dira: lehena, Arabako Ostalaritza Elkarteari eta beste biak Gasteiz Cup izeneko oinarrizko futbol txapelketako antolatzaileei.

Hiru kasuetan baimena eman zen aretora sartzeko sarrerarik kobratzeko aukerarik izan gabe (sarrera librea eta doakoa zen) eta bi erakundeen arteko lankidetzaz hitzarmenaren euskarria izanik.

Egia da 2008ko bi espedienteetako batean une hartan “susmagarriro” ez zegoela Ogasun zinegotzi delegatuaren ebazpena; gerora, ordea, Ebazpen agiriaren kopia azaldu da, gaur egun espedienteetan jasoa dagoena.

Bestetik, ez dakigu zehazki zein arrazoirengatik proposatu zioten Ogasun teknikariek Ogasun zinegotziari 7.10 tasaz besteko tarifak ezartzeko, Kultura eta Kongresu Ekipamenduei buruzkoa, zeinak berariaz jasotzen duen % 99ra arteko hobariak izateko aukera eta zeinen artean erabilera anitzeko aretoa dagoen.

Gure iritzira, arrazoia izan daiteke bai Gasteiz Cup-aren inaugurazioa, bai Ostalaritza Erakusketarena ere, aurreagoko edizioetan beste areto batzuetan egin izana, hala nola, Ostalaritza Erakusketa Europa Kongresuen Jauregian; bertan, 7.10.1 Lehenengo tarifa tasaren 6. artikulua jasotzen du % 99ko hobari hau.

Dagozkion ikerketak egin ostean, badirudi bi kasuetan, bai Ostalaritza Erakusketak, bai Gasteiz Cup-ek hasiera batean, hurrenez hurren, Europa Jauregia eta kirol areto bat erabiltzea aurreikusitako zutela; lehenengoan, Europa Jauregiko kiroldegiaren larrialdiko irteeran egiten ari ziren lanek eragotzi egin zuten bertan erakusketa egitea eta ondorioz, Ostalaritza Erakusketa erabilera anitzeko aretora eramana izan zen bigarren aukera modura, % 99ko hobariaren ezarpenari eutsiz, han aurreikusia dagoena.

Bigarren kasuan, aldaketa egin zen erabilera anitzeko aretoak estalkia duelako eta honenbestez, Gasteiz Cup-en inaugurazioan eguraldiaren gorabeherak saihesteko bide ematen zuelako, bai soinu ekipoen erabilerari zegokionez, bai talde parte-hartzaile guztien aurkezpenerako inaugurazio saioari zegokionez ere, izan ere, nahiz uztailan egitekoa izan, aurreagoko edizioetan eguraldi txarraren ondorioz arazoak izan ziren. Honela, bada, gogoan izanik kirol instalakuntzen erabilerak jardura berezietan –Gasteiz Cup-en esaterako– salbuespenak ere aurreikusten dituela, uste dugu teknikariek Ogasun zinegotzi delegatuaren ebazpena prestatu zutela baimentzen zen erabilera motari eta haren inguruabarrei erreparatuta, areto motari bainoago.



Nolanahi den ere, adierazi nahi dugu, HKEE honek behin-betiko txostena mamitzeari dagokionez, 2007/2011 Legegintzaldiari dagozkion hiru kasuetan:

Hobarien emakida Ordenantza Fiskalen arabera horretarako eskumena zuen Zinegotzigoak gauzatu zuela, hau da, Ogasun Zinegotzigo Delegatuak eta honenbestez, udal Artekaritza Orokorraren kontrolei meneraturik egoteko posibilitatea aurreikusita.

Berebat, hiru kasuetan, bermea aurkeztu zen.

Hiru kasuetan sarrerak Ogasun Sailak horretarako gaitutako kontuan gauzatu ziren eta “modu ofizialean” kontabilizatu ziren.

Hiru kasuetan, instalakuntzen erabilera Udalaren eta interesa zuten elkarteen arteko zegokion lankidetzaren hitzarmenaren babesean egin zen.

Eta kasuetako bakarrean ere ez zen utzi aretora sartzeko sarrera kobratzen, udal instalakuntzen hobariz lagundutako erabileran irabazi asmoko jarduerak gauzatzea eragotziz.

Bereziki azpimarratu nahi dugu erabilera baldintzei egindako erreferentzia hauek guztiak, izan ere oraingo legegintzaldian eta 2011ko ekainaz geroztiko erabileretan ondotik adierazitako moduan jokatu zen:

Ia hobari guztiak ezarritako prozedura guztiz saihestuta gauzatu ziren; hau da, ez zituen horretarako eskumena zuen atalak izapidetu, Ogasun Alorreko zinegotzi delegatuak, eta honenbestez, zuzenbidean erabat baliogabe dira. Eta honenbestez, ia ezinezko ziren udal Artekaritza Orokorraren kontrolak.

Ia kasurik gehienetan ez zen zegokion bermea ere eskatu aretoak erabiltzeagatik, hori ere Ogasun zinegotzi delegatuaren eskumen zena.

Ia kasurik gehienetan ez zegoen ez hitzarmenik, ez babesletza kontraturik ere, Erabilera Anitzeko aretoaren erabilera eta emandako hobariak babestuko zituenik.

Ia kasu guztietan ez zen Ogasun saila bere kontu ofizialean tasengatiko sarrerak kontabilizatzen zituena, baizik eta Kultura eta Jaien Plangintza Zerbitzuko kontu “partikular” bat.

Azkenik, 7 aldiz aretora sartzeko sarrera kobratzen utzi zen % 99ko hobarien ezarpena indarrean zela eta honenbestez, irabazi asmoko erabilera baimenduz, aparteko hobariekin bateragarri dena: Honako hauetan hain zuzen ere: Melendiren kontzertua, Motor Show Freestyle, Leo Harlem, Marea-ren kontzertua, Manolo García-ren kontzertua, Gran Circo Wonderland eta Gasteiz Festi Reegae.

Honenbestez, HKEE horren behin-betiko txostenean bidezkoa litzateke Ogasun Alorreko bi Zinegotziko Delegatuen jokamoldeek erakutsi dituzten alde handi horiek aintzat hartzea, ezen 2011ko ekainera arte emandako erabilera kopuruan ikus daitekeenez, data horretatik aurrera emandakoen aldean, 2008 eta 2009an emandako hiruak guztiz apartekoak baitira eta ez dagozkio ohiko jokamoldeari. Aurkako eran, baina, Ogasun Alorreko zinegotzi delegatuak



ordenantza fiskaletan ezarritako prozedura orori muzin egiteko jokabideak emandako ia hobari eta salbuespen guztietan, bereziki 2012 eta 2013ko urteetan, indarrean zeuden arauekin zerikusirik ez zuen “modus operandia” erakusten zuen.

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

Gobernu Batzordeak, 2011ko martxoaren 25ean, aurreko ekitaldiko ordainagiriak onartzea, 2,2 milioi eurorenak”.

ALEGAZIOA

Udal honek tradizioz aurreko ekitaldiko ordainagiriak diren 2 eta 3 milioi euro bitarteko kopuruak dakartza berarekin, hurrengo ekitaldiko aurrekontuan erregistratzen direnak. Nahiz egoera hau urteko aurrekontu-printzipioari aurkajartzen zaion, eta ahal den heinean era honetako egoerak saihesteko beharrezko diren neurriak hartzea eragotzi gabe, “Kredituen judizioz besteko onarpen” espedientea onartuta zuzentzen da. Espediente hau 500/1990 Errege Dekretuan aurreikusten da. Honela, bada, 500/1990 Errege Dekretuaren 26. artikulua indarrez: *“Con cargo a los créditos del estado de gastos de cada presupuesto solo podrán contraerse obligaciones derivadas de adquisiciones, obras, servicios y demás prestaciones o gastos en general que se realicen en el año natural del propio ejercicio presupuestario. No obstante, se aplicarán a los créditos del presupuesto vigente, en el momento de su reconocimiento, las obligaciones siguientes:*

c) Las obligaciones procedentes de ejercicios anteriores a que se refiere el artículo 60.2 del presente Real Decreto”.

Bestetik, 60.2 artikulua agintzen du “erakundearen Udaltzari dagokio kredituen judizioz kanpo onartzea, betiere aurrekontuan zuzkidurarik ez badago”.

Aipatu dugun 1990. urteko Errege Dekretuaren arabera, Biztanleria Handiko Udalerrien kasuan (zeinaren araubide juridikoa 2003an arautzen den TEOL aldatzearekin) Udaltzak onartze honek Gobernu Batzordeari eskuordetzen dizkio kudeaketa eskumen guztiak (era honetan, kontratu guztiak Gobernu Batzordeak onartzen ditu, zeinahi dela ere horien zenbatekoa); honenbestez, gure iritzira Gobernu Batzordea izan daiteke kredituak judizioz kanpo aitortzeko espediente hori onar dezakeena eta horren ondorio onartu zen 2011ko martxoaren 25eko erabakia; eta, jakina, kudeaketa eraginkorrago baten mesedetan era honetako espedienteak saihesteko beharrezko diren neurriak hartzea kaltetu gabe.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

“Udalak ez du 2011ko abenduaren 31ko ez aurrekontuan ez ondarean erregistratu TEFFFren ekitaldi horretako likidazio negatiboa, 7,6 milioi eurorena, zeina 2012ko TEFFFen izango duen partaidetzatik kenduko den (ikus A.4).”

ALEGAZIOA

Nahiz erreferentzia jada ez dagokion Lazcoz jaunaren legegintzaldiari, 2011ko ekitaldiaren itxiera egungo alkateari dagokiolako, Artekari Orokorraren agiri bat ekarri nahi dugu hona, Arabako Foru Aldundira 2011ko apirilaren 12an igorri zena eta zeinaren kopia honako alegazioen idatzi honi erantsi diogun.

Agiri horretan ikus daiteke Artekari Orokorrak orduko Toki Administraziozuzendariari informazio osagarria eskatu ziola Toki Erakundeen Finantzaketarako Foru Funtza Gasteizko Udalarari banatzean, aurrekontuan aplikatzeko ondorioetarako.

HKEE horri gainera diezaioket, Gasteizko Udalaren Artekari Orokorrak adierazi digula eskabide hari ez zaiola oraindik erantzunik eman idatzi hau egin dudanean.



ALEGAZIOAK, VITORIA-GASTEIZKO UDALEKO ALKATEAK 2011-KO EKITALDIAREN FISKALIZAZIO LANARI JARRITAKOAK

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

2011ko martxoaren 25ean TGBk erabaki zuen 2011ko aurrekontuaren kontura 2010eko ekitaldikoak ziren gastuak aitortzea, 2,2 milioi euroren zenbatekoan, obrak egiteko, zerbitzuak emateko eta ondasunak hornitzeko baliatu zirenak; horiek guztiak ezin egotzi izan zitzaizkion zegoen aurrekontuari, behar hainbateko krediturik ez zegoelako edo gastu egiaztagiriak 2011n egin zirelako.

ALEGAZIOA

Honekin batera Tokiko Gobernu Batzarrak 2011ko martxoaren 25ean aurreko ekitaldiei dagozkien fakturak onesteko hartutako erabakiaren eta 2011ko martxoaren 14ko Kontu-hartzaitzaren txostenaren kopiak bidaltzen ditugu (1. AGIRIA). Agiri horien bitartez aitortu egiten dira 2010 baino lehenago hartutako eta 2011ko Aurrekontuaren kontura ordainduko diren kredituak; horrek, alabaina, gerora zenbait ordainketa kreditu adierazterik izan daiteke, kreditu osagarrien dosierren bitartez. Aldaketa horiek ez ziren egin, Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiari jarraiki fakturak 2011ko aurrekontuaren kontura ordaindu zirelarik, ez baitzen beharrezkoa izan.

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

2011ko ekitaldian zehar Udalak 2010eko ekitaldiko kreditu geldikinak txertatu ditu eta kreditu osagarriak onartu ditu, horiek finantzatzeko behar hainbateko diruzaintza geldikinik izan gabe, 3,6 milioi euroren zenbatekoan (ikus A.2).

ALEGAZIOA

2011 ekitaldiari dagokion 16/11 dosierrean kreditu soberakinak eranstea erabaki zen (behin akatsak atzeman ostean), guztira 32.536.406,50 euro. Egia da soberakinak gehitzean finantza-baliabidezat jo zirela (akatssez) guztira 3,6 milioi euroko baliodun ekarpenak edo ekarpena egiteko konpromiso irmoak. Alabaina, erantsitako kreditu-soberakinei zegozkien 2011 ekitaldian onetsitako obligazioak soilik 16,6 milioi eurokoak izan ziren. Praktikan, finantziario-iturrien erabilera desegoki horren ondorioak erabat deuseztatzen ditu; izan ere, soilik erantsitako soberakinen % 50en (gutxi gorabehera) onetsi da obligaziorik.

II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA (IKUS A.16)

Guztira 5,1 milioi euroan esleitutako bi obra kontratutan, hasierako kontratuan 831.153 euroren aldaketak egin dira SPKLren 217.3 artikulua aurreikusten



dituen izapideak bete gabe, izan ere obrak aldaketa onartu aurretik gauzatu dira (5 eta 12. espedienteak). Berebat, 14,9 milioi euroren zenbatekoan esleitutako beste kontratu batean, obra kontratuari lotutako zerbitzuaren aldaketetatik bi onartu aurretik ematen ari ziren, guztira 1,3 milioi euroren zenbatekoan, APKLTBren 101 artikulua urratuz (13. espedienteak).

ALEGAZIOA

Puntu honi dagozkien azalpen guztietarako, ikus 16. eranskinean jasotako Erosketetarako eta Kontratazioan Laguntzeko Zerbitzuaren, Gizarte Etxeen Zerbitzuaren eta Euskara Zerbitzuaren txostenak.

Gainera, 13. dosierrari dagokionez, 2010eko maiatzaren 14an eta uztailaren 9an onetsitako aldaketen arabera, aldaketak Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia baino hilabete eta erdi eta bi hilabete lehenagotik –hurrenez hurren– aplikatzekoak ziren. Aldaketen zenbatekoa zehazteko zailtasunak kontuan hartuta, nahitaez baliatu behar izan zen epe hori; izan ere, onartutako instalazioen eta horiek funtzionatzen izatearen kostuak ezagutu behar zituzten Udal Eraikinetako Mantentze Sailean; baita kontratua aldatzeko legezko izapideak ere, betiere erabilera egokienerako baldintzak betearaziz.

DIRU-LAGUNTZAK (ikus A.8)

Udalak 2011n 2 diru-laguntza eman dizkie bi kirol federakunderi lankidetzak hitzarmenen bitartez, 1,1 milioi euroren zenbatekodunak; ordea, diruz lagundutako xedea bat dator SPKLn araututako kontratuetan jasotako zerbitzu prestazioekin. Jokamolde honen ondorioz, gastu publikoa ez zaie administrazio publikoen kontratazioan buru egiten duten publizitate, lehia, gardentasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezeko printzipioei egokitzen (ikus A.8).

ALEGAZIOA

Arabako Pilota Federazioa – Frontoiak kudeatzea eta frontoietan pilotaren praktika sustatzea

Hitzarmenak bi zeregin hartzen zituen baitan: pilotaren praktika sustatzea, eta frontoien kudeaketa (ireki, zaindu, garbitu eta kontrolpean izatea). Kirol federazio guztiek berezko dituzten helburuak aintzat hartuta, aspalditik jo izan da Arabako Pilota Federazioa lan horiek egiteko hitzarmen-subjektu. 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, behin indarrean zegoen kontratua amaitzean, eta esku-hartzailearen erreparatu-oharretako jarraibideen arabera, hitzarmenaren ordez lehiaketa publiko bidezko kontratua formula erabili izan da. Horrela egiten da orduetik hona.

Arabako futbol federazioa - Udalaren futbol zelaiak dinamizatzea

Aurreko kasuaren antzera, urte askoan Udalaren futbol zelaiak kudeatzeko hitzarmen-subjektu jo izan da Arabako Futbol Federazioa, bere izaera juridikoagatik. Kasu honetan,



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2013ko irailaren 1ean hasi zen hitzarmenaren formularen ordezkari kontratuaren erabilera. Federazioak berak eskatu zuen aldaketa atzeratzea, bere ardurapeko langileek sortuko zizkieten arazoengatik.

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Udalak ez du 2011ko abenduaren 31ko ez aurrekontuan ez ondarean erregistratu TEFFFren ekitaldi horretako likidazio negatiboa, 7,6 milioi eurorena, zeina 2012ko TEFFFen izango duen partaidetzatik kenduko den (ikus A.4)

ALEGAZIOA

2011ko abenduaren 31n ez zen 2011ko FOFELen itzulketari buruzko informaziorik jaso, 2011 aurrekontu-ekitaldiaren amaieran ez zelako informazio horren berri: izan ere, FOFELen itzulketa 2011ko hitzartutako zergen bilketa amaitu ostean zehazten zen. Normalean, informazio hori hurrengo ekitaldiko 2. hiruhilabetekoan FOFELen izandako partaidetzaren komunikazioarekin batera jakinarazten zaie udalei. Beraz, eta Kontabilitate Instrukzioarekin bat etorritik, hurrengo ekitaldian egindako diru-sarreraren itzulketa gisa erregistratzen du Udalak FOFELen likidazio negatiboa.

Hartara, 2011ko FOFELen likidazioa 2012ko maiatzaren 4ko ALHAOn argitaratu zen (51. zenbakia). Udalbatzaren Araudi Organikoaren X. bis Tituluaren (Kontu Orokorra onesteko prozedura) 1. puntuaren arabera, Kontu Orokorra maiatzaren 2a baino lehen aurkeztu behar da; beraz, ezinezkoa da 2011ko urteko kontuetan FOFELen itzulketa jasotzea.

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

2011ko aurrekontu likidazioan barne hartutako konpromiso kredituen gastu egoerak, 193 milioi eurorenak, ekitaldi itxieran konpromiso kredituenak ez diren 175 milioi euro barne hartzen ditu eta horietatik 131 milioi euro 2011n BAIC eta Geltoki Intermodalaren kontratuen amaierari dagozkio (ikus A.17).

ALEGAZIOA

Hauxe dio otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoak:

50. artikulua: Luzamenduaren araubidea

4. puntua) Konpromiso-kredituak berez sartuko dira luzatutako aurrekontuan.

22. artikulua: Konpromiso-kredituak

3. puntua) Aurrekontuek ezin dute konpromiso-krediturik bildu, baldin eta beraien gauzatzea ekitaldian bertan hasten ez bada; hori dela eta, ordainketa-kreditu egokiak izan behar dituzte.



II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Udalak ez du euskarri egoki edo behar adinakorik, Egoeraren balantzean jasotako ibilgetuaren kopurua 2011ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen egiazko egoerarekin bat datorren ondorioztatzen utziko duenik.

ALEGAZIOA

Ibilgetuaren balorea bat dator Udalaren inbentarioan erregistratutako ondasun eta eskubideen balorearekin.

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Udalak finantzaketa atxikia duten gastuen gainean egiten duen kontrolak ez digu ondorioztatzen uzten Udalak atxikitako diruzaintza geldikin modura eta gastu orokorretarako diruzaintza geldikin modura jasotako kopuruak zuzenak diren.

ALEGAZIOA

Aurrekontuaren likidazioan zehazten da Diruzaintza-soberakinaren kalkulua; bertan zehazten da –oso ondo zehaztu ere, doikuntza-eranskin eta guzti–, zenbatekoa den gastu orokorretarako diruzaintzako soberakina, eta zenbatekoa finantziazioa atxikia duten gastuetarako banatzeko soberakina.

Likidazio hori 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorraren baitan dago, zein 2012ko uztailaren 6an onetsi baitzuen Osoko bilkurak.

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

2011ko abenduaren 31n Udalak ENSANCHE 21, SARI guztira 16,5 milioi euro ordaintzeko ditu, Sozietate horrek BAIC eraiki eta kudeatzeko eta Geltoki Intermodala eraikitzeko Udalak egindako mandatuen kontzeptuan gauzatutako gastuen ondorioz. Kopuru honetatik erregistratzeko daude 9,4 milioi euroren inbertsioak. Gainera, “Finantza pasiboak” 9. kapituluan 6,4 milioi euroren zenbatekoa kobratzeko du, ordaintzeko dauden aitortutako obligazioen zati bat finantzatzeko; horiek, baina, ez dira baliatuko Udalak BAIC eraikitzeari uko egin diolako (ikus A.9 eta A.12). Zor hau ENSANCHE 21-era ekarritako ondarearekin kitatzen da, ARICH desegin, kitatu eta suntsitu ondoren, 2012ko martxoaren 1etik aurrerako ondorioekin.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Ez da zuzena Udalak 2011ko abenduaren 31n 21 Zabalgunea erakundeari 16, 5 milioi euro zor ziola. Izan ere, zenbateko hori Udalak 21 Zabalguneari 2012ko abenduaren 31n zor ziona da.

Gure ustean, egoki litzateke Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak 5. puntu honetan jasotakoa berriro osatuko balu, baina 2011ko abenduaren 31kako informazioarekin.

2011ko abenduaren 31n 9,4 milioi euro erregistratzeko zeudela esatean da, baina –jarraian adieraziko diren arrazoiak tarteko– ez gaude konforme

- 413 zenbakiko kontuan agertzen da 9,4 milioi horietako zati bat: 7.745.198,70 euro.
- 2012ko ekainaren 26an sartu zen Udalaren fakturen erregistroan 200200044 zenbakiko faktura (248.742,89 eurokoa).
- 2012ko ekainaren 26an sartu zen Udalaren fakturen erregistroan 200200055 zenbakiko faktura (109.050,89 eurokoa).
- 2012ko ekainaren 26an sartu zen Udalaren fakturen erregistroan 201200056 zenbakiko faktura (147.479,73 eurokoa).

Beraz, Kontu Orokorra osatu osteko gertakariak dira.

II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Hona hemen Gasteizko Udalaren 2011ko abenduaren 31n gastu orokorretarako Diruzaintza Geldikinean, data horretan itxitako Egoera Balantzean eta Funts Propioetan eragina duten doiketak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AURREKONT.	ONDAREKOA		
	DIRUZAINZA GELDIKINA	AKTIBOA	PASIBOA	FUNTS PROPIOAK
2011.12.31n sortutako eta erregistratu gabeko obligazioak				
A.4 TOFF 2011ko likidazioa.....	-	-	7.562	(7.562)
A.7 Ondasun arrunten erosketak eta zerb.	(3.607)	-	3.607	(3.607)
A.14 Gizarte segurantzari ordainketak gastua erregistratu gabe	(1.751)	-	1.751	(1.751)
Ekitaldi itxietako eskub., zorpetu gabeak eta 11.12.31n erregistratuak				
A.13 AMVISAKo 2010eko ekita. dibidendu bikoiztuak.....	(3.000)	(3.000)	-	(3.000)
Ekitaldiko eskubideak, zorpetu gabeak eta 11.12.31n erregistratuak				
A.4 Diru-laguntza arruntak eta kapitalezkoak	(1.303)	(603)	700	(1.303)
Ekitaldiko eskub., zorpetutakoak eta 11.12.31n erregistratu gabeak				
A.4 Diru-laguntza arruntak eta kapitalezkoak	2.671	2.338	(333)	2.671
Beste batzuk				
A.13 Nekez kobratzekoen hornidura defizita	(16.175)	(16.175)	-	(16.175)
Ondare Kontabilitatearen doiketa				
A.11 Sozietateen kapital sozialean partaidetza balorazioan aldeak.....	-	3.481	-	3.481
A.15 Kobratzeko dauden ENSANCHE 21eko dibidenduak.....	-	35.326	-	35.326
GUZTIRA	(23.165)	20.687	13.891	6.890



ALEGAZIOA

Gure ustean, koadroa eguneratu egin beharko litzateke, Udalak aurkeztutako eta Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak egoki irizten dituen zehaztapenen arabera.

II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

IGIk atxikitako sarreradun gastuetan finantzaketa desbideratzeen azterketarik ez dauka, 3/2004 FAren 48.7 artikulua agintzen duen moduan; horren ondorioz, ekitaldiaren emaitzak eta diruzaintza geldikinak ez dituzte barne hartu balizko finantzaketa desbideratzeetatik eratorritako doiketak. Honenbestez, ez dakigu atxikitako diruzaintza geldikinaren eta gastu orokorretarako diruzaintza geldikinaren arteko banaketa zein den.

ALEGAZIOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak txostena eman duenerako, doikuntza horiek egin dira 2013ko likidazioan.

II.3 SOZIETATE PUBLIKOAK: AMVISA, TUVISA, ARICH, ENSANCHE 21 ETA GILSA

II.3.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA (IKUS A.19.2)

1. Autobusen Geltoki Intermodala eraikitzeko proiektuaren idazketa 2010eko uztailaren 9an 678.000 euroan esleitu zen (BEZa barne). 2011ko uztailaren 8an TGBk kudeatzeko gomendioaren baldintzak aldatzea erabaki zuen eta honenbestez, ENSANCHE 21-ek kontratu hau suntsitzea, zeinaren egikaritza 339.000 eurorena zen, eta sozietateari publikotasunik gabeko prozedura negoziatu berria abiarazteko agindu zion, proiektua Geltokiaren kokagune berrira egokitzearen. Kontratu hau aurrekoa esleitu zitzaion hirugarren berari esleitu zitzaion 2011ko azaroaren 9an, 700.000 euroren zenbatekoan (BEZ barne hartu gabe). Ez da justifikatzen SPKLren 154 eta 158 artikuluetan ezarritako baldintzak betetzea publikotasunik gabeko prozedura negoziatua den bezalako prozedura apartekoa baliatzeko.
2. AMVISAk 191.452 euroren gastua gauzatu zuen publikotasun eta lehia printzipioak betetzea bermatuko zuen prozedura baliatu gabe.

Epaitegi honen ustetan, Gasteizko Udalaren Sozietate Publikoek, 1etik 2ra bitarteko paragrafoetan aipatutako lege hausteak alde batera, zuzentasunez bete dute 2011ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II.3.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. *Higiezinaren merkatuak bizi duen krisia aintzat hartuta, zalantza dago ARICH, ENSANCHE 21 eta GILSAren jabe diren sozietateen izakinak eta higiezinaren ibilgetuarekin lotutako aktiboak gauzatzeari dagokionez; horien saldoa ekitaldi itxieran, hurrenez hurren 17,0, 164,8 eta 39,3 milioi eurorena da izakinetan eta GILSA sozietateak higiezinaren ibilgetuan 2,6 milioi euro ditu.*
2. *ENSANCHE 21 sozietatearen ibilgetu materialen idazpuruak Sozietatearen egoitza berria hartzen duen eraikina egokitzeko kostua jasotzen du, 2,3 milioi euroren zenbatekoan, Gasteizko Udalaren jabetzakoa dena. Txosten hau idatzi dugun datan, gauzatzeko daude Sozietatearen eta Gasteizko Udalaren arteko akordioak, aipatutako eraikinaren erabilera baldintzak arautuko dituztenak; litekeena aipatutako kontularitzako erregistroa eragitea.*
3. *ENSANCHE 21 sozietatearen “Finantza aktiboak” idazpuruak “Bezeroak” idazpuruan, besteak beste, sozietateak Konpentsazio Batzordeei igorritako 17,4 milioi euroren fakturen saldoa jasotzen du; eta “Enpresei emandako kredituak” idazpuruan, berriz, Konpentsazio Batzorde ezberdinei emandako maileguen saldoa, 3,4 milioi eurorena. Txosten hau idatzi dugun datan hitzarmen bat negoziatzen ari dira zor horiek kitatzeko eta horrek erregistratu den zenbatekoan eragina izan lezake.*
4. *ENSANCHE 21 sozietateak 2011ko ekitaldi amaieran erregistratzeko ditu hainbat hirigintza gastu, 2,7 milioi euro inguruko zenbatekoan. Eragiketa hau erregistratzeko Galera eta irabazien kontuko gastuak eta Konpentsazio Batzordeetako hornitzaileen eta hartzekodumen idazpuruko saldoak kopuru horretan gehitzea ekarriko luke.*

Epaitegi honen iritzira, 1etik 4ra bitarteko paragrafoetan adierazitako salbuespenek izan dezaketen eragina alde batera, Gasteizko Udalaren Sozietate Publikoaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2011ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa erakusten dute, 2011ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena eta ekitaldian zehar bere eragiketen emaitzena.

ARICH sozietatearen gainean plazaratu dugun iritzian eraginik izan gabe, sozietatearen administratzaileek jardura eten dela eta beste sozietate eta udal sail batzuetan integratu dela jakinarazi dutela adierazten dugu. Sozietatearen jardueraren ezaugarriak eta duen udal izaera aintzat hartuta, aktibo eta pasiboak udal erakunde horietara aldatuko dira. Honenbestez, egitate honek ez du aktibo eta pasiboaren balorazioa eragiten eta ekitaldi itxieran balantzean zuen klasifikazioa abian den enpresaren printzipiopean formulatu da. Ekitaldiko urteko kontuak ez dituzte sei administratzailek izenpetu eta horren arrazoitzat jo dute formulatu aurretik dimisioa aurkeztu zutela eta ez zetozeela bat desegitearen edo jardura etetearen kausarekin.



ALEGAZIOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak jakinarazi bezala, 2011ko uztailaren 8an Tokiko Gobernu Batzarrak aldatu egin zuen kudeatzeko gomendioa. Bere estatutuei jarraiki, Sozietatearen Administrazio Kontseiluak onetsi egin zuen aldaketa hori, eta onespenaren arabera jokatu zuen. Begi bistakoa da Sozietateak ez duela Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren legaltasunaren gaineko azterketarik egin: batetik, ezin du egin; bestetik, ez dauka eskumenik.

Hori esan ondoren, HKEEk dioena gogoratu behar da: “ez da justifikatzen Sektore publikoko kontratuen Legearen 154. eta 158. artikuluetan salbuespeneko prozedurara jotzeko (halakoa baita publizitaterik gabeko prozedura negoziatua) eskakizunak betetzen direnik”. Beraz, HKEEk prozeduraren justifikazio eza aipatzen du, ez hori legez kontrakoa denik. Ogasun Sailak zein Aholkularitza Juridikoak Tokiko Gobernu Batzarrak onetsitako irizpenaren aurrean alegazioak aurkeztu edo ez gorabehera, honakoak aipatu behar dira:

- Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez esleitu zen zerbitzu kontratuaren xedea aurreko korporazioak Ocenda-Usandizaga-Azilu ABEBri kontratatu zion arkitektura proiektua baten egokitzapena zen. Korporazioak onetsi zuen proiektu hori, bai eta Arabako Foru Aldundira bidali ere, han onetsi zedin. Ezin da ahaztu era horretako proiektuak ez direla soilik arkitektonikoak, baizik eta erredaktoreen pertsonalitate sortzailea adierazten duten elementu artistikoak dituela berekin. Gainera, gure ordenamendu juridikoak jasotzen dituen obraren gaineko eskusibotasun eskubideak babesteko elementuak ere baditu berekin.
- Xede hori JGLk autobus geltokiaren kokapena Arriagako parketik Euskaltzaindia plazara aldatzeko (200 metro inguru beraz) alde hartutako erabakiaren nahitaezko ondorioa da. Erabaki politikoa da hori; ez da, ondorioz, HKEEk fiskalizatzeko gaia. Erabaki horrek bi aukeren artean hautatu beharra zekarren, arkitektura proiektu berria osatzea, edo aurretiaz zegoena kokapen berrira egokitzea.
- Erabakiaren atzean arrazoi ekonomiko eta azkartasunezkoak zeuden. Izan ere, lehen aukera garestiagoa zen (bi proiektu ordaindu beharko lirateke; hots, 1,5 milioi eurotik gorako kostua soilik proiektutan, eta bietako bat baztertu behar izango zelarik), bai eta epe luzeagokoa ere (kontratatzeko prozedurak eta idatzi eta onesteko aldiak kontuan hartuta, hamabi eta hamabost hilabete inguruko denbora tartea eskatuko luke).
- Erabilitako lege-bidea (publizitaterik gabeko prozedura negoziatua), horixe da egokia garai hartan indarrean zen Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 154 d) (hitzez hitz: “Baldin eta, arrazoi tekniko edo artistikoengatik, edo eskusiba-eskubideak babestearekin zerikusia duten arrazoiengatik, kontratua enpresaburu jakin bati baino eman ezin zaionean”), eta 158 artikuluetan (“Kontratuaren prestazioaren ezaugarriak direla eta, ..., kontratuaren baldintzak ezin direnean ezarri prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitzeko behar den zehaztasunarekin”) xedatutakoaren arabera. Begi bistakoa da HKEEk adierazi bezala baldintza horiek aurretiazko txosten batean edo irizpenean berean zehaztu beharko liratekeela. Hain begi bistakoa izanik xehetasunik batere eman beharrik ez izatea izan liteke azalpena.



- Hasierako prozedurara aurkeztu ziren lantaldeen arteko (guztira 8) bakar batek ere ez zuen publikataterik gabeko prozedura negoziatuaren formula erabiltzearen aurka errekurtsorik aurkeztu, ezta Elkargo Ofizialek ere.

2.- URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

2.1.- SOZIETATEAREN IZAKINEN ETA IBILGETUAREKIN LOTURIKO AKTIBOAK GAUZATZEARI BURUZKO ZALANTZAREN INGURUAN

HKEEaren iritzia bat datoz Batzar Nagusiak eginiko Sozietatearen kontuen onespenerari urtero laguntzen dion auditoretza txostenean azaldutakoekin.

Alabaina, bi alegazio egin behar dira:

- 2013ko ekitaldiko auditoretza txostenak (honekin batera aurretiazko txosten bat eransten da) jarraian adieraziko direnetera mugatzen ditu zalantzak: 33,6 milioi eurotan baloratutako orube eraikigarrietara; 16,4 milioi eurotan baloratutako etxebizitza eta lokal komertzialetara; eta 3,1 milioi eurotan baloratutako bestelako higiezin-inbertsio batzuetara. Hori dela eta, auditoretza txostenean adierazitakoaren arabera mugatu egin beharko litzateke HKEEaren iritzia.
- 2014ko otsailaren 20an, Sozietatearen Administrazio Kontseiluak Sozietatearen ondasun higiezinak eta hirigintza eskubideak balioesteko laguntza teknikoa kontratatzeko prozedura abiaraztea onetsi zuen. Hamahiru eskaintza aurkeztu dira, eta uztaileko Kontseiluan esleituko da kontratua. Aurreikuspenen arabera, urte amaierarako lana amaituta egongo da.

2.2.- KONPENTSazio BATZORDEEKIKO HARREMAN EKONOMIKO ETA FINANTZIEROEN INGURUAN

Amaitu dira Sozietatearen eta Konpentsazio Batzordeen arteko azken balantzeak zehazteko eztabaidak. Emaitza Sozietatearen aldeko 5,085 milioi euroko saldo positiboa da. Biltzeko dago hiria ekialde eta mendebaldetik handitzeko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea.

2.3.- UDALAREN JABETZAKOA DEN SOZIETATEAREN EGOITZAREN ERABILERA BALDINTZEN INGURUAN

HKEEaren txostenak Sozietatearen auditoretza txostenetako oharrak biltzen ditu; edukia ezagun dute kontseilariak zein Batzar Nagusiak (hots, Udalbatzak). Ensanche 21 Ogasun Sailarekin hizketan dago, egoera nola erregularizatu begira.

2.4.- 2011KO ABENDUAREN 31N SOZIETATEAK ERREGISTRATZEKO DITUEN HIRIGINTZA GASTUEN INGURUAN

Gastu horiek 2013 ekitaldian kontabilizatu dira, jatorrizko hitzarmenaren 1. eranskinen (2004ko martxoaren 15a) aurreikusitakoaren arabera adostu zen Salburu eta Zabalganeko

dentsitatearen hazkuntzatik datozelako. 2012ko ekainaren 26ko bileran, Hitzarmenaren jarraipen batzordeak hazkuntza hura baloratu zuen; 2012ko azaroaren 30an onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak, eta 2013an kontabilizatu ziren gastuak.

III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN

III.1.1 AURREKONTUA, LIKIDAZIOA ETA KONTABILITATEA

Kontularitzako erregistroa

2011n bertako langileriarik kontsumoko maileguen emakida eta amortizazioaren kontularitzako erregistroa, hurrenez hurren, 446.570 eta 434.790 eurorena, aurrekontuz kanpoko kontuetan egin da eta ez, hurrenez hurren, gastu eta sarrearen "Finantza aktiboak" 8. kapituluetan.

ALEGAZIOA

Aurrekontutik kanpoko erregistrotzat daukagu, ez ditugulako langileentzako mailegu gisa jo, baizik eta Diruzaintzako aurrerapen gisa. Beraz, aurrekontuz kanpoko Diruzaintzako eragiketez ari gara.

Erabiltzen ohi ditugun kontabilitateko instrukzioen arabera, aurrekontuz kanpoko zorduntzat joko dira Aurrekontua betetzeaz aparteko eragiketen (edo eragiketa lagungarrien) ondorioz sortzen direnak, zeinetan Erakundearen beraren aldeko kredituak sortzen baitiren.

Kreditu horiek ordainketen ondorioz sortzen dira beti, inoiz obligazioaren aurretiazko aitortpenik izan gabe.

Zordun hauek tratatzerakoan, besteak beste mailegu eta gordailuen ordainketen artean berezitu beharko da.

III.1.2 LANGILERIA

Udalbatzak hala eskatuta, 2007-2011 aldian zuzendaritzako langileen kontratazioaren legezkotasuna aztertu dugu. Epe horretan zehar gauzatutako 3 koordinatzaile orokorren eta 7 zuzendariren izendapenean azaleratu da 5 kasutan ez zutela karrerako funtzionario izaera eta beste 5etan, izendapena ez da egin karrerako funtzionarioen artean, zeini sartzeko doktore, lizentziatu, ingeniari edo pareko titulazioa eskatzen zitzairen. Hauetako kasu bakar batean ere ez da izendapen horiek baimenduko dituen Udalbatzaren erabakirik egon, zuzendaritza postuko ezaugarri bereziei dagokienez. Gainera, izendapen erabakietan ez dago berariazko arrazoitzerik kudeaketa publiko edo pribatuan erantzukizuneko postuak betetzean gaitasun profesional eta eskarmentuzko irizpideak oinarri hartuta, TAOALen 130.3 artikulua agintzen duen moduan (ikus A.6).



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Hauxe dio Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoak (zein 2010eko abuztuaren 13an onetsi baitzen), I. Tituluko 8. artikulua (Goi mailako karguak eta zuzendaritza organoak) hirugarren paragrafoan: “Hauek dira zuzendaritza organoak: koordinatzaile nagusiak, zuzendari nagusiak...”. Beraz, 2010eko abuztuaren 13an onetsitako Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoa onestearekin, definituta geratzen dira koordinatzaile nagusiak eta zuzendari nagusiak zuzendaritza organo gisa.

Bestalde, hauxe dio araudi bereko 9. artikulua: “Zuzendaritza organoak eta udal arloak alkatearen dekretuen bitartez sortzen, aldatzen edo deuseztatzen dira, dagokion gobernu arloaren titularrak proposatuta”.

Araudiak ez du zehazten zein kargu bete ditzaketen funtzionario ez diren langileek; horrenbestez, horien kopurua eta ezaugarriak gobernuaren eskumena dela ulertu behar da.

III.1.2 LANGILERIA

2005eko azaroan argitaratu zen azkeneko aldiz Udalaren LZ ALHAOn. Orduz geroztik, LZk hainbat aldaketa jasan ditu. Inguruabar hau bera gertatzen da IGIren eta Dantza Kontserbatorioaren LZn, hasiera batean, hurrenez hurren, 1995ean eta 1997an onartu zirenak. IGIIn, gainera, aldaketa horietako bat (Udaleko funtzionario postu bat 2007an berratzikitzea) ez da ALHAOn argitaratu eta LZk ez du lanpostu bakoitzari dagokionez esleitutako hizkuntza-eskakizuna jasotzen, EFPLren 15.1 artikulua agintzen duen moduan Gomendagarria litzateke egindako aldaketa guztiak eta lanpostu bakoitzaren betekizunak jasoko dituen LZ argitaratzea, EFPLn ezarritakoaren arabera.

ALEGAZIOA

Udaleko Lanpostuen Zerrenda argitaratuta dago, eta gaurkotu egiten da Udalaren web-orriaren bitartez. Laster lanpostuen zerrenda guztiak argitaratuko dira, behin orain izapidetze prozesuan dagoen 2014ko aurrekontu plantilla onestearen ondorioz hura aldatu ostean.

III.1.2 LANGILERIA

IA Musika Eskolako LZk ez ditu 2 funtzionario postu jasotzen. EFPLren 14.1 artikulua agintzen du aurrekontuan zuzkitutako lanpostu guztiak jaso behar direla LZn.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

Udaleko Lanpostuen Zerrenda argitaratuta dago, eta gaurkotu egiten da Udalaren web-orriaren bitartez. Laster lanpostuen zerrenda guztiak argitaratuko dira, behin orain izapidetze prozesuan dagoen 2014ko aurrekontu plantilla onestearen ondorioz hura aldatu ostean.

III.1.2 LANGILERIA

Gasteizko Udalaren Erakunde Autonomoek ez daukate aurrekontu plantillarik, funtzionario Talde eta Kidego bakoitzari eta lan kontratupeko langileria -kasua bada- sailkatzen den kategorietatik bakoitzari dagozkion zuzkitutako plazen zerrenda zehaztuko duena eta dagozkion kreditu zuzkidurak barne hartuko dituen, ezargarria zaion hitzarmen kolektiboan ezarritakoaren arabera ordaingarriak diren ordainketa-kontzeptuen arabera antolatuak, EFPLren 20 eta 21 artikuluetan finkatutakoa urratuz.

ALEGAZIOA

2011ko aurrekontuekin batera erakunde autonomoen lanpostuen zerrenda onesten da, betiere langileen eranskinen bidez.

III.1.3 KONTRATAZIOA (IKUS A.16 ETA A.18.2)

5 kontraturen gainean egindako 7 aldaketa ez dira administrazioko agiri bidez gauzatu, guztira 4,2 milioi euroren zenbatekoan (13, 17, 25, 32, 34 espedienteak). Bestalde, 3 kontraturen gainean egindako 8 aldaketetan, guztira 3,9 milioi euro egin dituztenetan, ez da behin betiko bermea egokitu (17, 32, 34 espedienteak).

ALEGAZIOA

13. eta 17. dosierrei dagokienez, onetsitako aldakuntzak formalizatzen ari dira orain; gaur-gaurkoz, agiri horiek sinatzeko zain daude.

17. dosierreko bermearen berregokitzean bermea ez agertzeari dagokionean, nahikotzat jo izan zen bere garaian esleipendunak gerta zitezkeen erantzukizunei aurre egiteko osatu zuena. Hain zuzen ere, nahikotzat jo izan zen ezaugarri bereziak dituen hornidura kontratu horren iraupen luzeagatik (10 urte). Horrengatik, kontratuari aplikatu zaion behin betiko bermeak milioi eta erdi euroko kopurua gainditzen du.

III.1.4 DIRU-LAGUNTZAK (IKUS A.8)

Udalaren aurrekontuan barne hartutako 2011ko ekitaldirako diru-laguntzen plan estrategikoak ez ditu DLOren 8. artikulua eta Diru-laguntzen Udal Ordenantzaren 3. artikulua ezarritakoaren arabera jaso beharko lituzkeenak.



Bestetik, 2011ko ekitaldian 3,2 milioi euroren diru-laguntzak eman dira, plan estrategikoan barne hartu gabe zeudenak; ez da, baina, behar bezala justifikatu horien emakida, AEUAREN 13.1 artikulua agintzen duen moduan.

ALEGAZIOA

Txosten hau eman denerako, Tokiko Gobernu Batzarrak onetsia du 2014ko Diru-laguntzen Estrategi Plana (2014ko maiatzaren 30ean, hain zuzen ere), non konpondu diren atzemandako akatsak.

Era berean, organo eskumendunek onesten dute Diru-laguntzen Estrategi Planean aurrekusi gabeko diru-laguntzak ematea, delako diru-laguntza emateko unean berean.

III.1.5 BERANDUTZA ETA AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA

Udalak eta Erakunde Autonomoek ez dituzte 2011n 15/2010 Legean agindutako txostenak egin ordainketa epeak betetzeari buruz eta hiru hilabetetik gorako epea duten aitortu eta kontabilizatu gabeko erregistratutako fakturei buruz. Gainera, 2011n ordainagiriak ordaintzeko ezarritako 50 eguneko epea urratu da, izan ere, Udalak egindako kalkuluen arabera, 2. eta 6. kapitulueta fakturak ordaintzeko batez besteko epea 2011n 58,87 egunekoa izan da.

ALEGAZIOA

Egia da 2011ko ekitaldian ordainketak egiteko batez besteko epea 57,08 egunekoa izan zela; baina Udalak neurriak hartu ditu epea hori laburtu, eta hartara araudiz jasotakora egokitzeko. Horrenbestez, ordainketak egiteko batez besteko epea 52,30 egunekoa izan da 2012ko ekitaldian, eta 47,61 egunekoa 2013an.

III.1.5 BERANDUTZA ETA AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA

2011n Gasteizko Udalak (Udala, Erakunde Autonomoak eta Udal Sozietate Publikoak barne hartzen ditu) ez du aurrekontuaren egonkortasun helburua bete, Udal artekaritzak aurrekontuaren egonkortasuna betetzeari buruz jaulkitako txostenaren arabera, izan ere, ekitaldi honetan defizita edo finantzatzeko beharra sarrera ez finantzarioen % 7,35ekoa izan da, 2012ko maiatzaren 22ko Toki Administrazioiko Batzorde Nazionalaren Araubide Ekonomiko, Finantzario eta Fiskaleko Azpibatzerdearen Erabaki bidez baimendutako % 4,39 baino handiagoa.



ALEGAZIOA

2010-2013 aldirako egonkortasun plana onetsi zuen 2010eko martxoaren 22an Udalbatzak. Horrez gain, 2011 ekitaldirako aurrekontua onetsi ostean, 2012ko urtarrilaren 26an berraztertu eta eguneratu egin ziren 2010eko martxoaren 22an onetsitako planaren datuak, 2013ko abenduaren 31ko jomuga aldatu gabe. Kontu-hartzailetza Nagusiak 2010eko ekitaldiko aurrekontu egonkortasuna ebaluatzeko egindako txostenak mahai gainean jarri zuen plana aldatu eta doitu beharra; izan ere, zenbait desoreka atzeman zituen, plana amaitzeko egunerako (2013ko abenduaren 31rako) egonkortasuna lortu ahal izatea oztopa zezaketenak.

Kontu-hartzailetza Nagusiak 2014ko martxoaren 31n emandako txostenaren arabera, 2013 ekitaldian bete zen aurrekontu egonkortasuna lortzeko helburua: % 2,27ko finantzatzeko gaitasuna lortu da, sarrera ez finantzarioen gainean.

III.2.5 ORUBEAK BESTERENTZEA

Gasteizko HAPOn 4. Sektorean "Elejalde", 19. Sektorean "Aretxabaleta-Gardelegi" eta 13. Sektorean "Larrein" hiru egoitza lursailen salmentan, ENSANCHE 21 sozietateak 2007 eta 2009ko ekitaldietan esleitutakoak eta 2011ko ekitaldian eskritoretan jasotakoak, hurrenez hurren, 2,5, 4,7 eta 3,6 milioi euroan esleitutakoak, deialdiaren oinarri-arauek haztatu gabe dauden esleipen irizpideak barne hartzen dituzte. Gainera, aurkeztutako eskaintzak balioztatzean osotasunezko puntuaketa ematen da, irizpideen araberrako puntuaketarik zehaztu gabe eta emandako puntuaketak arrazoitu gabe.

ALEGAZIOA

Ekitaldi horietan ez dugu erreklamazio edo kexarik batere jaso izan, ez partaideen aldatik, ezta lanbide-elkargo inplikatuenetik ere. Epaimahaiak bost arkitektoz osatu zen (hainbat sektore ordezkatur) eta enpresa partaideek aurkeztutako proiektuak aztertu ditu, bakoitzari puntuak eman eta proiektuak hierarkizatuz.

III.2.6 BERANKORTASUNA

Uztailaren 5eko 15/2010 Legeak abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen du, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen; Lege horrek Xedapen gehigarri hirugarrenean agintzen du sozietateek berariaz argitaratu beharko dutela haien urteko kontuen Txostenean hornitzaileei ordainketak egiteko epeei buruzko informazioa. TUVISAk aipatutako legean batez bestean ezarritako legezko epea 52 egunetan gainditu du 381.903 euroren zenbatekoan.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ALEGAZIOA

2011 ekitaldian fakturak emandako datan kontabilizatzen ziren, baina kasu batzuetan dezentez geroago ematen zitzairen oniritzia. Hau da, hornitzaile jakin batek faktura ematen bazuen, baina zerbitzua ez bazen oso-osorik ematen, edo desegoki ematen bazen, faktura hori ez zen artean ontzat ematen, ez zen artean ordaintzen. Baina egoera konpontzearekin bat, orduan kontabilizatu egiten zen faktura gordea, hornitzaileari faktura berri bat egin zezan eskatu ordez. Itxura batean desfasea dagoela ematen duen arren, ez da erreal: eraginkortasunaren alde ekiten zitzaion jokamolde horri.

V. FINANTZA ANALISIA

Aurrezki garbia: Aurrezki garbia aurrekontuaren likidazioaren datuekin kalkulatu dugu. Kopuru honek finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du (interesak eta zorraren amortizazioa, hurrenez hurren gastuen 3. eta 9. kapituluetan kontabilizatzen direnak) eta Udalak baliabide arrunten bidez inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du. aztergai izan dugun aldian, magnitude hau 2009an 15,3 milioi euroren zenbateko negatiboa izatetik 2011n 24,4 milioi euro positibo izatera aldatu da, aurrezki gordinak izan duen igoaldi handiaren ondorioz, nahiz finantza zamak ere % 20,51ko igoera izan duen.

Alabaina, erakunde baten kaudimen analisisian aurrezki garbia erabiltzeko gogoan izan behar da, baita ere, sarrera arrunten kapituluetan kontabilizatutako eskubide aitortuak daudela, kapital gastuak finantzatzen dituztenak. Udal honen kasuan aparteko interesa dute ENSANCHE 21en dibidendu bidezko diru-sarrerek, 2011ko ekitaldian 26,5 milioi euro egin dituztenak, LUOren norakoei atxikiak daudelako, LHLren 115. artikulua araber. Inguruabar hau aintzat hartuta, 2011ko abenduaren 31n aurrezki garbia negatiboa litzateke 2,1 milioi euroren zenbatekoan.

ALEGAZIOA

Gerta daitezkeen nahasteak saiheste aldera, gure aburuz Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak argitu egin behar luke bere idazkian darabilen “aurrezki garbia” formulazioa ez dagokiola Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauko 53. artikuluan agertzen den espresioari, baizik eta aurrekontuaren likidazioaren datuen arabera kalkulaturako aurrezkiari.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.4 TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

2011ko abenduaren 31n Udalak ondotik adierazitako kontzeptuen izenean gehiegizko eskubideak aitortu ditu:

	Euroak milakotan
Kirolaren goi mailako Kontseilua Kirolaren teknifikaziorako zentroa.....	200
Eusko Jaurlaritzak: Garapen iraunkorra sustatzeko ekintzak, 2011.....	403
Txirindu zerbitzua, 4. belaunaldia	300
Giroitutako igerilekuan beroa berreskuratzeko proiektuak.....	103
GUZTIRA	603

ALEGAZIOA

Ez dugu ulertzen zergatik esaten den neurritz gaineko eskubide-kopurua aitortu dugula, eskubideen aitortza agirien bidez oinarrituta baitago.

A.4 TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Gainera, Udalak BAIC eraikitzeari uko egin ondoren, Udalak INAEMi ekitaldi horretan jasotako 700.000 euroren diru-laguntza itzuli behar dio. 2013ko urriaren 8an Zerga Agentziak zorra zatikatu du eta lau ekitalditan ordainduko da, 2013tik 2016ra bitartean hain zuzen ere.

ALEGAZIOA

Txosten hau eman denerako, ordaindu izan da 2013ko zenbatekoa.

A.4 TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Bestetara, Udalak ez ditu 2011ko abenduaren 31n aitortu 505.137 euroren eskubideak, Eusko Jaurlaritzak 2011/2012 ikasturteko lehenengo hiruhilekoagatik haur eskolentzako emandako diru-laguntzari dagozkionak. Berebat, ez ditu 333.270 euroren eskubideak aitortu, Eusko Jaurlaritzak 2011n hiri merkataritzaren dinamizazio eta lehiakortasunerako emandako eta ordaindutako diru-laguntzari dagozkionak eta Udalak "Beste erakunde batzuen baliabideen kudeaketa" aurrekontuz kanpoko kontuan jaso duena (ikus A.14). Berebat, ekitaldi horretan AFaren gizarte zerbitzuen sailarekin izenpetutako 3 hitzarmenen luzapenari dagozkion eskubideak aitortzeko ditu. Hitzarmenen xedea eta horien zenbatekoa honakoak dira:

	Euroak milakotan
Adinekoei laguntzeko "San Prudentzio" zentro integraleko laguntza unitatean 74 plaza hitzartzea.....	1.465
San Prudentzioko eguneko zentroa mantentzea	304
Gizarte larrialdietarako zerbitzua garatzea	64
GUZTIRA	1.833

ALEGAZIOA

Hona hemen hori azaltzen duten arrazoiak:

- Eusko Jaurlaritzak haur eskolentzako emandako 505.137,07 euroko diru-laguntzaren kasuan, 2012 ekitaldiari egotzi zaio, diru-laguntza emateko ebazpena 2011ko azaroaren 30ekoa delako, eta horri zegokion hitzarmena (2011-2012 ikasturterako) 2011ko abenduaren 29an sinatu zelako. Hau da, ia-ia urtea amaituta sinatu zen, eta –Udalan beti jarraitu den irizpidearekin bat– 2012 urteari egotzi zitzaion.
- Eusko Jaurlaritzak hiri merkataritzaren dinamizazio eta lehiakortasunaren alde emandako 333.270 euroko diru-laguntzaren kasuan, ebazpena 2011ko azaroaren 28koa denez gero (Eusko Jaurlaritzatik irteteko data azaroaren 30a; Udalan jasotzeko data abenduaren 5a), ez zuen eskubidearen aitortzea 2011ko ekitaldian egiteko denborarik eman.
- AFAREN Gizarte Zerbitzuen Sailarekin sinatutako hitzarmenen kasuan, hitzarmenaren luzapenak 2011ko abenduaren 27an sinatu ziren, hau da, ia-ia aurrekontu ekitaldia amaituta, nahiz 2011rako izan.

Gasteizko Udalaren diru-sarreraren kontabilitatea egun naturalen arabera gauzatzen da; ez dauka, beraz, 2011koak izan arren, horiei buruzko agiriak 2012an jaso ziren eskubideak benetan zegokien ekitaldiari (2011ri) egotzeko gaitasun teknikorik.

A.6 LANGILERIA GASTUAK

2007tik 2011ra bitartean zuzendaritzako langileen izendapenen legezketasunaren analisia

TAOALen 130.1 artikulua agintzen du zuzendaritzako atal direla:

- a) Area edo zinegotzigo bakoitzeko koordinatzaile orokorrak.*
- b) Area handi edo zinegotziko bakoitzaren administrazioko antolamendua osatzen duten zuzendari orokor edo antzeko jardute-atalak.*
- c) Tokiko Batzorde Orokorrari eta bertako zinegotzi-idazkariari laguntza emateko atalaren titularra.*

Gainera, 130 artikulua horren 3. puntuak adierazten du koordinatzaile nagusien eta zuzendari nagusien izendapena Estatuko, Autonomia Erkidegoko toki Erakundeetako karrerako funtzionarioen artean edo nazio mailan jarduteko gaitutako dauden toki administrazioko funtzionarioen artean egin beharko dela eta horiei sartzeko doktore, lizentziatu, ingeniari, arkitekto edo pareko titulazioa eskatuko zaiela, nola eta Udaltzako udal antolamenduaren oinarritzko mailak zehazterakoan, 123.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki, zuzendaritzako lanpostuaren berriazko ezaugarriak aintzat hartuta, ez duen titularrak funtzionario izaera hori ez betetzeko bide ematen. Kasu honetan izendapenak arrazoitu egin beharko dira, kudeaketa publiko zein pribatuan erantzukizuneko lanpostuak betetzean gaitasun profesional eta eskarmentu irizpideei jarraiki.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hona hemen aldi horretan zehar egin diren izendapenak:

LANPOSTUA	IZENDAPEN	KARGUZTE	HUTSAK	
	DATA	DATA	A	B
1. Hirigintza saileko zuzendaria, plangintza zuzendaritza	14/07/07	13/06/11		
2. Kirol saileko zuzendaria	04/09/07	30/09/09	A	
3. Sustapen ekonomikorako saileko zuzendaria	19/09/07	14/07/09		
4. Ingurumen saileko zuzendaria	19/09/07	13/06/11		
5. Hiritarren segurtasun saileko zuzendaria	17/01/08	16/04/10		
6. Hirigintza saileko zuzendaria, azpiegituren zuzendaritza	17/01/08	13/06/11		
7. Funtzio publikoko saileko zuzendaria	11/03/08	19/11/10		
8. Ogasun saileko zuzendaria	23/04/09	13/06/11		
9. Gizarte artekaritzarako saileko zuzendaria	29/05/09	13/06/11		
10. Sustapen ekonomikorako saileko zuzendaria	16/07/09	13/06/11		
11. Kirol saileko zuzendaria	30/09/09	13/06/11	A	
12. Hiritarren segurtasun saileko zuzendaria	17/04/10	13/06/11		
13. Funtzio publikoko saileko zuzendaria	19/11/10	13/06/11		
14. Mantentze saileko zuzendaria	19/11/10	26/05/12	A	
15. Gizarte artekaritzarako saileko zuzendaria	13/06/11			
16. Sustapen ekonomikorako saileko zuzendaria	13/06/11			B
17. Hiritarren zerbitzu emateko eta kirolen saileko zuzendaria	13/06/11		A	
18. Hirigintza saileko zuzendaria	13/06/11			B
19. Funtzio publikoko saileko zuzendaria	13/06/11			
20. Ogasun eta ekonomia saileko zuzendaria	13/06/11			
21. Ingurumen saileko zuzendaria	13/06/11		A	
22. Hiritarren segurtasun saileko zuzendaria	13/06/11	26/01/12		
23. Ingurumen eta espazio naturalaren koordinatzailea	13/06/11			B
24. Alkatezako koordinatzaile nagusia	13/06/11			B
25. Proiektu estrategikoen koordinatzaile nagusia	13/06/11			B
26. Informazio teknologien saileko zuzendaria	13/06/11			

A Funtzionarioa, baina ez zaio sartzeko doktore, lizentziatu, ingeniari, arkitekto edo pareko titulurik eskatu.

B Ez da funtzionarioa.

ALEGAZIOA

Hauxe dio Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoak (zein 20eko abuztuaren 13an onetsi baitzen), I. Tituluko 8. artikulua (Goi mailako karguak eta zuzendaritza organoak) hirugarren paragrafoan: “Hauek dira zuzendaritza organoak: koordinatzaile nagusiak, zuzendari nagusiak...”.

Bestalde, hauxe dio araudi bereko 9. artikulua: “Zuzendaritza organoak eta udal arloak alkatearen dekretuen bitartez sortzen, aldatzen edo deuseztatzen dira, dagokion gobernu arloaren titularrak proposatuta”.

Araudiak ez du zehazten zein kargu bete ditzaketen funtzionario ez diren langileek; horrenbestez, horien kopurua eta ezaugarriak gobernuaren eskumena dela ulertu behar da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.7 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA

Udalak 2011ko ekitaldi itxieran erregistratzeko ditu guztira 3,6 milioi euro, ondoko xehapenarekin:

	Euroak milakotan
Argindarraren hornidura, 2011ko azaroa eta abendua.....	1.528
Hiri garbiketa: 2011ko abenduko fakturaren zati bat	806
2011ko abenduan hiri hondakin solidoak tratatzeko plantaren ustiaketa	485
Posta zerbitzuak 2011ko, azaroko fakturaren zati bat eta abendua.....	205
Bestelako txikiago batzuk.....	583
GUZTIRA	3.607

ALEGAZIOA

413 zenbakiko kontuak (“Hartzekodunak, aplikatu gabeko fakturengatik”) 2.360.168,52 eurokoa kantitatea hartzen ditu baitan. Zenbateko hori 2011 amaitzean, gastu-egiaztagiriari 2011n egin zirelako benetan zegokion aurrekontuari (2011) egotzi ezin izan zitzaizen fakturetatik dator.

Hiriko garbiketari, hiri hondakin solidoak tratatzeko lantegiaren ustiakuntzari, posta zerbitzuei eta beste kontzeptu txiki batzuei zegozkien fakturak aurreko ekitaldiei dagozkien fakturak onartzeko dosierraren (zein Tokiko Gobernu batzarrak 2012ko otsailaren 25ean onetsi zuen) fakturen eranskinean ageri dira.

A.9 eranskinari jarraiki, bertan behera utzi behar dela uste dugu.

A.7 ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA

2014ko urtarrilaren 17an TGBk Udalaren eta AMVISAREN artean hitzarmen bat izenpetzea onartu zuen, Udalak data horretan ordaintzeko zuen merkataritza zorra finantza zor bihurtzeko. Zorra 8,8 milioi eurorena zen eta 2014-2021 aldian ordainduko da.

ALEGAZIOA

2011 ekitaldiari dagokion Azken egoera balantzeko 413 zenbakiko kontuak (“Hartzekodunak, aplikatu gabeko fakturengatik”) 5.811.850,32 eurokoa kantitatea hartzen ditu baitan. Zenbateko hori 2008tik 2011ra bitartean AMVISAK ur horniketa, ur zikinen tratamendua eta estolderiaren udal zerbitzua emateari dagokio; balantze hori Udalbatzak 2012ko uztailaren 6an onetsitako 2011ko ekitaldiko Kontu Orokorrean dago.

A.8 EMANDAKO TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZAK

Ondoren, emandako diru-laguntzak jaso dira, zeinen diruz lagundutako objektua SPKLn araututako kontratuetakoren batekin bat datorren. Jokamolde honen ondorioz, gastu publikoa ez zaio Administrazio Publikoen kontratazioan buru



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

egiten duten publizitate, lehia, berdintasun eta diskriminaziorik ezeko printzipioetara egokitzen.

		Euroak milakotan
ESLEIPENDUNA	DIRUZ LAGUNDUTAKO OBJEKTUA	AITORT. OBLIGAZIOAK
Arabako euskal pilota elkarte.....	Euskal pilotaren sustapena eta pilotalekuen kudeaketa	584
Arabako futbol federakundea.....	Udal futbol zelaien dinamizazioa	543
GUZTIRA		1.127

ALEGAZIOA

Arabako Pilota Federazioa – Frontoiak kudeatzea eta frontoietan pilotaren praktika sustatzea

Hitzarmenak bi zeregin hartzen zituen baitan: pilotaren praktika sustatzea, eta frontoien kudeaketa (ireki, zaindu, garbitu eta kontrolpean izatea). Kirol federazio guztiek berezko dituzten helburuak aintzat hartuta, aspalditik jo izan da Arabako Pilota Federazioa lan horiek egiteko hitzarmenaren subjektu. 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera, behin indarrean zegoen kontratua amaitzean, eta esku-hartzailearen erreparatu-oharretako jarraibideen arabera, kontratua esleitzeko lehiaketa publikoaren formula erabili izan da. Horrela egiten da ordutik hona.

Arabako futbol federazioa - Udalaren futbol zelaiak dinamizatzea

Aurreko kasuaren antzera, urte askoan Udalaren futbol zelaiak kudeatzeko hitzarmen-subjektu jo izan da Arabako Futbol Federazioa, bere izaera juridikoagatik. Kasu honetan, 2013ko irailaren 1ean hasi zen hitzarmenaren formularen ordezkariaren erabilera. Federazioak berak eskatu zuen aldaketa atzeratzea, bere ardurapeko langileek sortuko zizkieten arazoengatik.

A.13 SARREREN HONDARRAK ETA KOBRATU GABEAK

2010ean Udalak akats baten ondorioz 3 milioi euroren zenbatekoa bikoiztu zuen “Ondare sarrerak” 5. kapituluan, AMVISAtik eratorritako dibidenduei zegozkienak. 2011n 3 milioi euro kobratu ziren eta ekitaldi itxieran kobratzeko modura beste 3 milioi euro ageri ziren, kobratuko ez direnak eta baliogabetu beharrekoak direnak.

ALEGAZIOA

Txosten hau eman denerako deuseztatu dugu eskubidearen aitortpena (2013ko ekitaldian hain zuzen ere).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.13 SARREREN HONDARRAK ETA KOBRATU GABEAK

Udalak 5,3 milioi euroren zenbatekoa kalkulatu du kobragarritasuneko hainbat ehuneko balioetsiz, zorrak zein egoeratan dauden aintzat hartuta (borondatezkoan, derrigorrezkoan, abalarekin, ordainketa etenarekin...), bai ekitaldian, bai aurreko ekitaldietan ere. Nolanahi den ere, gogoan hartuta 372004 FAren 48.6 artikulua agintzen duena, zeinak dioen “behar bezala aintzatetsi eta kontuetan hartu eta 24 hilabete baino gehiagoko antzinatasuna duten eskubideak kobragaitzat edo kobraezinzat hartuko dira, behar bezala bermatuta egon eta likidatu eta jarraiko ekitaldian kobratzea aurreikusten denean izan ezik, orduan ez baitira eskubide horiek kendu behar”, gure iritzira, diruzaintza geldikinetik murriztu beharreko zalantzazko kobragarritasuneko saldoa eta kontzeptu berarekin egoeraren balantzean zuzkidura 16,2 milioi euroan gehitu behar litzateke.

ALEGAZIOA

Eskubide kobragaitzen kuantifikazioa doitzen ari da urtetik urtera legezko xedapenetan jasotakoaren arabera.

Hona eskubide kobragaitzen eboluzioa 2011 eta 2013 artean:

	2011	2012	2013
Kobratzeko dauden eskubideak	84.830.206,56 euros	86.181.318,82 euro	78.080.730,21 euro
Eskubide kobragaitzak	5.305.902,87 euro	9.072.544,14 euro	10.224.307,04 euro

A.14 AURREKONTUZ KANPOKO ERAGIKETAK

Udalak kudeaketa eta diru-bilketa zerbitzua ematen dio AMVISARI. Uren eta hondakin-uren zerbitzuaren erroldak kudeatzeko ardura du, kobratu eta ondoren udal sozietateari eskualdatzen dizkio. “Uren eta hondakin-uren zerbitzua” kontuan AMVISARI kontzeptu honen izenean eskualdatzeko dagoen kopurua jasotzen da. Horrezaz gain, AMVISARI 311.175 euroren zenbatekoa eskualdatzeko du, Udalak kobratu duen uraren kanonari dagokiona.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Udalak Antzoki Zaharraren salmentatik eskuratzen den diru-bilketa guztia ere kudeatzen du, bai konpainiei dagozkien diru-sarrerena, bai Udalarenak berarenak ere. “S12k kudeatzen ez dituen diru-sarrerak” kontuaren saldoak kontzeptu honen izenean 398.489 euro jasotzen ditu. Kontu horretan bertan barne hartzen dira Eusko Jaurlaritzak ordaindutako diru-laguntza bati dagozkion 333.270 euro (ikus A.4), Udalak 2012ko aurrekontuari ezarri diona.

ALEGAZIOA

Hona, jarraian Principal antzokiko sarrera-salmentaren funtzionamendua:

Bi ikuskizun mota programatzen dira bertan. Batetik Udalak berak sustatu dituenak; horrelakoetan, ekitaldiak gastuen aurrekontutik ordaintzen dira. Diru-sarrerak aurrekontutik kanpoko kontu batean sartzen dira behin-behinean, “S12 aplikaziotik kanpo kudeatutako diru-sarrerak” izenekoan.

Beste ikuskizun motan, konpainiak eramaten du bildutako dirua; Udala ez da biltzaile hutsa baino. Diru-sarrerak horiek ere aurrekontutik kanpoko kontu berberera joaten dira.

Bigarren kasu horretan, behin leihatila sarrerak likidatuta ordaintzen zaie konpainiei: beraz, aurrekontutik kanpoko kontuan Udalari dagokion saldoa hurrengo ekitaldiko diru-sarreraren aurrekontuan sartzen da, ezinezkoa baita teknikoko uneko ekitaldikoan sartzea.

A.14 AURREKONTUZ KANPOKO ERAGIKETAK

“Gizarte Segurantzza hartzekodunean” erregistraturiko saldoak 2011ko abenduaren 31n Gizarte Segurantzari ordaintzeko dagoen kopurua barne hartu behar luke, enpresa-kuotaren eta udal langileei egindako ekarpenen kontzeptuan, 2011ko azaro eta abenduko nominei dagozkienak eta 5,3 milioi euro egiten dituztenak. Alabaina, kontu honen saldoa aipatutako kopurua baino 1,8 milioi euro txikiagoa da. Urteen buruan metatzen joan den alde hori gizarte segurantzari hainbat kontzepturekin egindako ordainketei dagokie (epaiak, atzerapenak, kotizazio kontuen aldaketak, kotizazio kontzeptu berriak, e.a.), zeinaren gastua ez den “Langile gastuak” 1. kapituluan kontabilizatu.

ALEGAZIOA

Gizarte Segurantzaren balore lagungarrien kontuak (47.020.01 zenbakidunak) enpresek Gizarte Segurtasunaren kontura ordaindu beharreko kostuak eta langileei eginiko atxikipenen kontabilitate-apunteak jasotzen ditu. Gero, batera sartzen ditu kuotak, TC1 eta TC2 kotizazio-agirien bidez.

Udalak ordaindu beharreko kuotak kalkulatzeko programak ez du hilabete bakoitzari dagokion nominetan kalkulaturako kopuruen zenbaketa algebraikoa egiten. Oinarriak zenbatzen ditu, hori baita TC2n edo Gizarte Segurantzara bidaltzeko FAN fitxategian ageri dena; gero, oinarri guztien baturarekin, TC1 osatzen duten atal bakoitzarekiko egin beharreko ekarpen-ehunekoak birkalkulatu du. Horrek aldeak eragin ditzake nominen arabera kalkulaturako zenbatekoen eta TC1entzako kalkulaturako zenbatekoen artean.

2011ko desoreka hainbat urtetako metaketaren ondorio da: balore lagungarrien kontua ez da inoiz likidatu, eta horrek zenbait urtetako kontabilitate-desorekak metatzea eragin du.

Hona desoreka horien arrazoiak:

- 2007an aldaketa batzuk izan ziren Gizarte Segurantzaren, epigrafeak, eta horrek kalkulu-programak doitu beharra eragin zuen. Akatsez, zenbait hilabetetan nominak kalkulaturakoan ez zen kontuan hartu enplegatuen integrazioa kostua, nahiz bai abonatu zitzairen, TC1 formularioaren bitartez. Ez zen kontabilitate-apuntea behar bezala egin, eta ez zen zuzendu beharrekoa zuzendu. Akats hori ez da hurrengo urteetan zuzendu.
- 2009an patronal berriei eman zitzairen alta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren aginduz, eta enpresaren jarduera epigrafeak Udalaren jarduera anitz eta desberdinetara egokitu asmoz, (suhiltzaileak), programa-doikuntzen ondorioz kontabilitate-akatsak sortu ziren Gizarte Segurantzaren enpresako gastuak eta TC1 abonatzeko kontabilitate-apunteak kontatzean.
- Epez kanpo aurkeztegatiko edo isunagatik gainordainak ez daudenez nomina jakin batekin lotuta, ez da beti horri loturiko kontabilitate-apuntea egin izan.
- Eta, azkenik, enpleguari zenbateko finkoa ordaindu beharra ezartzen duen epai bidezko abonuek ez daukate, batzuetan, ordain-aldiko nominen birkalkulatu beharra; beraz, Gizarte Segurantzari ordainketa gehigarria egiten zaio, zein, batzuetan, ez den legokiokeen apuntean jaso izan.

Txosten honen xede den balore lagungarrien kontuan metaturako saldoak ikusi eta aztertu ostean, txostena eman den egunerako ezarri dira metaturako kontabilitate-desorekak konpontzera zuzenduriko neurri zuzentzaileak, eta kontua urtero zuzentzeko beharrezko agiri kontable gehigarriak egingo dira.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A.16 KONTRATAZIOA

Kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak berrikusi ditugu erosketa eta inbertsioen 36 espedienteko lagin baten bitartez, guztira 318,8 milioi euroan esleitutakoak (aldaketak, BEZagatiko igoerak eta likidazioak barne); horietatik 13, 2011n esleitu zituzten eta 23, aurreko ekitaldietan, nahiz ekitaldi horretako aurrekontuan jaso diren.

Fiskalizatutako espedientei ezargarria zaien araudia SPKL da, hau indarrean sartu ostean abiarazi ziren espedientei dagokienez, hau da, 2008ko maiatzaren 1a; lehenago abiarazi ziren haiei dagokienez, berriz, APKLTB ezarriko zaie.

XEDEA	UDALA						Euroak milakotan
	ESLEIPEN ZENBAT.	2011-KO EXEKUZ.	ESLEIPENA		AKATSAK		
			MOLDEA	DATA			
OBRAK							
1. Aranbizkarra parkeko ekialdearen erreforma	758	754	irekia	mar-2011	A3	D2	
2. Agirrelanda k.aren erref. J. de Garay eta Pozoa bitartean..	847	526	irekia	api-2011	A1,2	D2	
3. Ali errekaen lur-azpiratzea egokitzea	862	832	irekia	apir-2011	A2	D1	
4. Fermin Lasuen k.aren erreforma	1.091	284	irekia	uzt-2011	A1,2	D1	
5. Gardelegiko isurtegia handitu eta egokitzea, II. Fasea	3.540	583	irekia	mai-2010	A3	D2	
Aldatua	523			mar-2011		E1	
Likidazioa	78						
6. ELM Miñaoren azpiegitura eta urbanizazioa	1.578	1.441	irekia	mai-2010	A3	D2	
7. ELM Gereñaren azpiegitura eta urbanizazioa	1.314	1.146	irekia	ira-2010	A3	D2	
8. Zabalganan haur eskola eraikitzea	1.640	517	irekia	eka-2010	A1,3		
BEZaren igoera	28						
Likidazioa	160			mai-2011			
9. La Vitorianan kirol zelai eta aldagelen erreforma.....	2.960	1.346	irekia	eka-2010	A1,3		
BEZaren igoera	51						
Likidazioa	286			api-2011			
10. Musika kontserbatorio zaharra egoitza modura gaitzea							
Alde Zaharreko enpresen hazitegiaren zentrala.....	1.886	678	irekia	aza-2010	A3		
Likidazioa	49			eka-2012			
11. Mendizorrotza Gunearen ekipam., igerilekuak eta zerb.....	11.299	1.198	irekia	ots-2007		D1,2,5	
12. Eraikinaren hezegabetze eta eguzki indar sistema							
Mendizorrotza (**)..	1.542	311	irekia	mai-2010	A1,3	D2	
Aldatua	308			abe-2010		E1	
13. Berme osoko erreforma, kudeaketa eta mantentzea							
Udal igerilekuak (10 urte) (*)	14.891	1.922	Lehiaketa	uzt-2006			
1. aldaketa	892			aza-2006			
2. aldaketa	745			mai-2006		E1	
3. aldaketa	545			uzt-2006		D3 E1	
4. aldaketa	352			mar-2012			
5. aldaketa	223			mar-2013			
HORNIDURA							
14. Udalaren ibilgailuetarako erregaia (2 urte)	654	230	irekia	mar-2011		E2	
15. Argindarra kontsumo gune ezberdinetara			irekia	abu-2011			
sorta.....	AP	618					
2. sorta.....	AP	56					
3. sorta.....				Hutsik			
16. Zaharren egoitzetarako elikadura produktuak.....	AP	1.247	irekia	abe-2010			

.../...



UDALA

Euroak milakotan

XEDEA	ESLEIPEN	2011-KO	ESLEIPENA		AKATSAK
	ZENBAT.	EXEKUZ.	MOLDEA	DATA	
17. Kudeaketa energetikoa eta udal eraikinen airea girotzeko eta ur bero sanitarioaren instalakuntzen berme osoko mantentze lana (10 urte).....					
	35.070	4.689	Murrizt.	ira-2009	A3
1. aldaketa	1.104			api-2010	D4
2. aldaketa	1.726			mai-2010	D4
3. aldaketa	3.037			aza-2011	D3,4
4. aldaketa	(2.197)			abe-2012	D4
5. aldaketa	177			aza-2013	D3,4
ZERBITZUAK					
18. Udal liburutegien sarea (2 urte).....	2.204	450	irekia	eka-2011	B1
19. Aita, ama, dendei euskarako ikastaroak ematea (2 urte)	AP	127	irekia	uzt-2011	A5 B1
20. Gizarte etx. hiritar. arteko harrem. saila, aisía, denb.librea 11-13	3.413	594	irekia	uzt-2011	
21. Posta zerbitzuak (2 urte).....	AP	-	irekia	aza-11	
22. Aseguru pribatuak.....	1.401	-	irekia	abe-2011	
23. Zabalgana gizarte etxerako proiektuen erred., obren zuzend. .	760	412	irekia	uzt-2010	A3
Aldatua	43			ira-2011	
24. Administrazio elektronikorako prozesuen ber-ingeniaritza	760	441	irekia	ira-2010	
BEZaren igoera	13				
25. Etxerako laguntza, gizarte eta hezkun. esku-hartze zerb. (6 urte)	PH	2.973	Lehiaketa	abe-2007	A3
Aldatua	407			abe-2008	D3
26. Gune berdeak zaintzeko lanak (4 urte)	10.867	2.576	irekia	abe-2010	A3
Aldatua	(388)			eka-2012	
27. Sistema pneumatikoa jaso eta mantentzea (2 urte).....	1.520	760	irekia	urr-2010	
28. Hautagaiei laguntzea.....	799	528	irekia	abe-2010	
ADMINISTRAZIOKO BEREZIA					
29. ZZSKetan animazio soziokult. progr., informazio zerb. eta					
harrera, kafetegia, jantokia, ile-apaindegia eta beste.....	4.108	1.531	irekia	mar-2011	A4
30. Haurtzaro eta familia zerb. atxikitako etxe funtzionalen kudeak.	3.258	1.651	irekia	ira-2010	
31. Gizarte larrialdietako esku-hartze programa.....	600	600	irekia	aza-2010	A3,4
32. Kaleko heziketa programaren garapena (2 urte eta 11 hilab.)(*)	1.899	841	Lehiaketa	eka-2006	
Aldatua	91			ots-2008	D3,4
Aldatua	52			eka-2010	D3,4
ZERBITZUEN KUDEAKETA					
33. ALHren hiri hondakinak biometanizazio eta konpostatze bidez					
tratatzeko eraikinen proiektua idatzi, obrak egikaritu					
eta ustiapena esleitzea (*).....		5.814	Lehiaketa	aza-2003	
Eraikinean hasierako inbertsioa.....	23.289				
Inbertsioaren itzulketa kanona.....	21/hil				
Ustiapen kanona	AP				E2
34. Hiri garbiketa publikoa eta Gasteizko hiri hondakin					
solidoak jaso eta garraiatzea (8 urte) (*)	159.999	25.043	Lehiaketa	mar-2006	E2
1. aldaketa	-			aza-2006	
2. aldaketa	(106)			ots-2008	D3,4
3. aldaketa	8.360			mai-2010	
4. aldaketa	(551)			eka-2012	
35. Gardelegin hondakin solidoen isurtegiaren ustiapena (*)..	7.717	1.361	Lehiaketa	abe-2006	E2
PRIBATUA					
36. Azkena Rock Jaialdiaren babesletza, 2011	220	220	PGPN	eka-2011	B1 E2
GUZTIRA	318.754	64.300			

(*) 2006an fiskalizatutako espedienteak. Aurreko fiskalizazioaren ostean gertatutako gorabeherak soilik jaso ditugu.

(**) Hornidura modura izapidetua, nahiz egiaz obra kontratua den.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

	ESLEIPEN ZENBATEKOA
AKATSAK	
ESPEDIENTEA	
A1 Ez dago proiektuaren gainbegiratze txostenik eta/edo horren zuinketarik	8.080
A2 AKPPetan ez da ezarri prezioa irizpidearen haztaketarik.....	2.800
A3 AKPPetan prezioa balio-neurtzeko formulak mugatu egiten ditu beheranzko prezioak edo zigortu egiten ditu batez bestekoarekiko gertutasunak.....	62.515
A4 AKPPetan kaudimen irizpideak esleipen irizpide modura balioztatu dira.....	4.708
A5 AKPPetan KPI prezioak berrikusteko klausula modura ezartzen da.	AP
ESLEIPENA	
B1 Ez da esleipena dagokion aldizkari ofizialean argitaratu	2.424
EGIKARITZA	
D1 Hasiara batean aurreikusitako epea amaitu ostean onartutako epe luzaketak	13.252
D2 Formalizatu gabeko epe luzaketak.....	20.878
D3 Administrazioako agirian formalizatu gabeko aldaketak	4.203
D4 Bermeak doitu gabeko aldaketak	3.884
D5 Azken ziurtagiria kontratazioaz besteko atal batek onartua eta atzerapenez.....	11.299
BERARIAZKOAK	
E1 Garaiz kanpoko aldaketak, gastua gauzatu ondoren onartutakoak.....	2.121
E2 Irizpenetan jasotako berariazko akatsa.....	168.590

ALEGAZIOA

OGASUN SAILEKO EROSKETETARAKO ETA KONTRATAZIOAN LAGUNTZEKO ZERBITZUAREN ALEGAZIOAK

1 ARANBIZKARREKO PARKEAREN EKIALDEA ZAHARBERRITZEA

BOAParen prezioaren balorazioak mugatu egiten ditu behera egiteak, edo zigortu batez bestekoenganako gertutasuna.

a. Hauxe xedatzen du Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 75. artikulua (zein erreferentziarako dossierretan aplikatu beharrekoa den): “Kontratazio-organoei, kontratua benetan bete dadin, prezioa egokia izatea zainduko dute, zenbatekoaren balioespen egokia eginez. Horretarako, lizitazio-aurrekontua finkatzerakoan, merkatu-prezio orokorra hartuko dute kontuan...”. Aztertutako baldintza-ori bakoitzean (zerbitzu teknikoek kontratuaren xedeaz, baldintzez eta berariazko inguruabarrei buruz duten ezagutzatik abiatuta), eskaintzak Administrazioarentzat probetxuzko izan daitezkeen tarreak aztertu dira, dela balorazio ekonomikoaren ikuspegitik, dela prezioaz aparte baloratu beharreko beste faktoreen inguruan.

Hori dela eta, udal zerbitzu teknikoek ulertu zuten lizitazio-aurrekontua bat zetorrela garai hartako merkatuaren errealitatearekin; beraz, aurreikusitako tarte ekonomikoak lehiaketara aurkez zitezkeen enpresek hobetzeko tarte nahikoa ematen zuela ulertu zen.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

